

Annasate

1999ko azaroak 26
473. zenb.



Eguneroko nomadismoa

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KULTURA ELKARRIZKETA: VALENTIN ARANA
EUREN IKUSPUNTUTIK: EUGENIO ITURRIOTZ • KIROL GAIA: UARCAPE PILOTALEKUA

Fotodet

Lore

Olarte, 10 • ARRASATE • Tel: 943 79 52 50

Z
G
zi
fo
ra
be
tz
en
pe
tr
ne
te
on
au

H
E
ra
Ba
Er
te

tz
ka
rr
re
du

Gai b

Abolk

depilazioa

• Zer da fotodepilazioa?

Gizon eta emakumeen azaleko ilarik zitalena kentzeko metodorik berriena da fotodepilazioa; laser izpiaren bidez auke-
raketa eginez desegiten da ilea, azaleko
beste egiturei kalterik egin gabe.

Oso metodo hautakorra da, gorpu-
tzeko edozein atal tratatzeko aukera
ematen du eta ez du minik edo eragoz-
penik sortzen.

Fotodepilazioa aukeratzen dutenak
tratamendua bukatu eta berehala egu-
neroko bizitzako lanetara itzuli ahal izat-
en dira.

Metodo honek ez ditu ohiko besteak
ordezkatzeko, baina horien alternatiba da,
aurreratu, moderno eta eraginkorragoa.



• Edozeinek erabil dezake depilazio- rako metodo hau?

Bai.

Erabiltzaileak bi motatako pertsonak izat-
en dira:

a) Ile normala dutenak.

b) Ilea gehituta dutenak (adibidez, jai-
otzetiko hipertrikosia, hormonon desore-
ka, herentziazkoa, etab. dutenak).

Gure metodoarekin (Nd:YAG lase-
rrekin) edozein azal mota eta ile kolo-
retako pertsonak trata daitezke, ile zuria
dutenak izan ezik.



• Depilaziorako beste metodoen (argi- zari, labana, elektriko, etab) aldean, zer abantaila du fotodepilazioak?

Orañ arte erabili diren metodo guztien
artean, laser bidezko depilazioaren aban-
taila nagusia epe laburrean ilea galtzen
joatea da (pertsonaren eta gorputzeko
atalaren arabera) eta epe luzerakoa edo
behin betikoa ere izan daiteke.

Beste abantaila handi bat minik gabe-
koa izatea da; ez du ia eragozpenik sor-
tzen.

• Zer efektu sekundario eragin deza- ke depilazioko metodo honek?

Egia esan, ez dago efektu sekundario
aipagarriarik. Izatekotan ere, azala apur
bat gorritzea, baina berehala desager-
tzen da.

Edozein modutan ere, eragin txarrak
saiheste aldera, komenigarri ikusi dugu
bezero guztiak gure mediku dermatolo-
go aholkulariaren kontsultara joatea.



Medikuak bezeroaren historia egin-
go du, une horretan hartzen ari den
botika fotosentikor edo azaleko trata-
menduen berri, azal mota, orbaintze
mota, etab. jakiteko, laser tratamen-
duarekin elkarreaginik izan ez dadin.

• Zein gomendio izan behar du kon- tuan fotodepilazioa egitea erabaki- tzen duenak?

Fotodepilazioaren ondoren ematen dugun
gomendio nagusia agerian dauden gor-
putz atalak eguzkitik babestea izaten da.
Fotodepilazioa egiten denean, edozein
urte sasotian, krema fotobabesleak era-
biltzea gomendatzen dugu, eguzki egu-
netan bereziki.

• Fotodepilazioak saio bat baino gehia- go eskatzen du?

Saio kopurua gorputzeko atalaren ara-
berakoa izaten da; batzuk txikiak izaten
dira, begitarrea eta ezpain-gaina adibi-
dez; beste batzuk ertainak, belarri ingu-
rria eta masailezur aldea bezala; han-
diagoak, besapea, izterondoak edo sabel
aldea, esaterako. Eta zabalenak, berriz,
zango-besoak, gorputz-enborra, bularra
etab. Adibide gisa ezpain-gaina edo bibo-
tea jarriko dugu: hilean behin eginda, 3-
4 saiorekin nahikoa izan daitekeela iku-
si dugu.

Bestelako aldagai batzuk ere hartu
behar dira kontuan: ilearen kalitatea, kolo-
rea eta azal mota besteak beste, saio kopu-
rura aldatu egin baitezakete.

• Gorputzeko zein ataletan egin dai- teke fotodepilazioa?

Gorputzeko edozein ataletan egin dai-
teke, lehen esan dugun moduan; hala ere,
dakizuenez, eskaera handiagoa izaten da
gorputzeko atalik bistakoenetarako, bibo-
tea eta aurpegi guztia edo besapeak eta
izterondoak udan.

Zer meritu dauka horrelako auto batek 5 urteko garantia izateak?



5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe

Nissan Primera berriaren zenbait desberdintasun lehen egunetik gozatzen da: Bere diseinu sendo eta kirol itxurakoa. Erosotasuna, dotorezia, eta barruko isiltasuna. Temperatura perfektua, klimatizagailuari esker. Bere Xenon optikei esker duen ikuspen bikaina. NBA (Nissan Brake Assist) galgatze-sistema, ahalegin txikiagoarekin galtze eraginkorragoa ziurtatzen duena. Multi-link suspentsio hobetua, egonkortasuna, kontrola eta arintasuna ematen diotenak. Alboetako eta aurreko airbagak, gorputz-enbor eta buruarentzat babesdunak. Cambio Hypertronic iraultzailea, CVT automatikoaren eta sei abiadurako eskuzko sekuentzialaren artean aukeratzeko modua eskaintzen duena. Motorraren gestio elektronikoa, biraketa-gama guztietan erregaiaren kontsumoa eta etekina hobetzeko. 1.6 (100 CV), 1.8 (114 CV), 2.0 (140 CV) eta turbodiesel (90 CV) bertsioetan. 4 eta 5 ateko eta SportWagon karrozeriak. Beste desberdintasun batzuk, berriz, urte batzuk geroago gozatuko dituzu. Garantia adibidez: 5 urte, kilometro-mugarik gabe. Hala ere, horrelako garantia eskaintzen badizugu, bistakoa da zergatia: seguruenik ez duzu sekula behar izango.

Bertsioen araberako ekipamendua.

Nissan Primera Berria. Bete-beteen autoa.

*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assitance, banatzailearen eskaintzadun promozio kanpaina, eta 5 urteko Garantia kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Belear uhartetako baliagarria, stockean dauden ibilgailuentzat. Prever plana ez dago barne.

PRIMERA	Pta.tik
1.6 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.339.000
1.8 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.639.000
2.0 SPORT 5P (climat/Xenon argiak/ABS/NBA)	3.239.000
2.0 TD COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.579.000
2.0 TD COMFORT Sport Wagon (ABS/NBA)	2.729.000

5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe.



Klimatizagailu berri



GIDATU ETA GOZATU

ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Tel. 945 71 00 00 - 945 71 00 00

Debagoiena

zena aldatu diote Deba Garaiari. Aurrerantzean, bailararen goiko aldea Debagoiena izango da, barrenaldea Debarrena, eta errekarro osoa Debarroa. Zentzuzkoa dirudi.

Euskaltzaindiak ez du beti asmatzen, baina gehienetan bai. Gero eta hobeto ari direla ere esan daiteke. Oraingoan, nire ustez, aukera ona egin dute. Eta zentzuzkoa bezain ona litzateke zarata handi barik Euskaltzaindiari men egitea. Gure artean euskarazko hizkuntzalari asko dago, eta euskal hitzun gutxi. Euskarari buruz baino euskaraz jardutea hobe, edozein

gaitaz. Nik behintzat, izenaz baino izanaz jardun nahi dut gaur. Ba ote da Debagoienik?

Geografian bai, noski. Deba ibaiak bere arroa du, eta



Mikel Irizar

“Herriak banaka baino batuta indartsuago dira, nortasuna gordetzeko”

arroak goiena eta barrena. Biztanleen kontzientzian, aldiz, ez dago garbi. Har ditzagun eskualdeko hiru herri nagusiak. Arrasate, historian zehar, Araba eta Bizkaia begira bizi izan da; Bergara, Gipuzkoari; eta Oñati... bere zilborrari! Hirurek elkar ikusi ere ikusi dute, baina begiertzetik.

Egoera aldatuz doa, baina. Kooperatiben indarrak elkarlanean jarri ditu hango eta hemengo herritarrak. Mankomunitateak batera gobernatzen ditu eskualdeko zaborren bilketa, abere hiltegia eta garapen agentzia, besteak beste. Eta Eroskiren hiperrak ez ditu soilik gure erosteko ohiturak bateratu, elkar ikusteko moduan ere jarri gaitu, denok denon bistan, plaza berrian.

Behar ote da gehiago? Ona ote litzateke harantzago joatea? Hemen ez dago erantzun samurrik. Katalunian, adibidez,

eskualdeak egitura historikoa dira. Eta lurraldeak, estatu zentralak ezarritako asmakizuna. Gurean, aldiz, nortasun bateratua lurraldeek izan dute. Hauen eta herrien artean ez da ezer handirik egon.

Oraín, ordea, eskualdeen funtzionaltasuna nabarmentzen ari da. Zenbait zerbitzu komun antolatzeke esparru egokia dira. Lurralde antolamenduan, 50.000tik 100.000ra bitarteko giza multzoa unitate aproposa da. Eta joera uniformisten aurrean, herriak banaka baino batuta indartsuago dira, nortasuna gordetze aldera.

Hedabideen arloan ere, eskualdea tamaina oneko esparrua da. Eta gurea, Debagoiena, aitzindari izan da gai honetan ere. Inon baino gehiago garatu dira hemen herri komunikabideak. Eta oinarri horren gainean garatu nahi da beste egitasmo bat, eskualde osoan komunikazio zerbitzuak euskaraz, gizalegez eta elkarlanean garatuko dituen.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta bakoitzaren zilborra ahaztu barik, elkarren berri izan dezagun. ■

“Bi urtez egon naiz hor goian eta medikuntza aldetik batez ere, ikusi dudana ez dut gustuko izan. Horregatik erabaki dut bizikleta lagatzea”

Joxemi Elizburu

8.308

Etxebizitza daude Arrasaten

Horietatik 7.429 lehen etxebizitza dira, 222 bigarren etxebizitza eta 657 hutsik daude. Horiek dira Nekane Juradok aurkeztu dituen datuak. Atentzioa ematen du zenbat etxe dauden hutsik. Askok, kontuan izanda zein garesti diren etxebizitzak.

BAZENEKIEN?

Taxista salataria

Bilbo faxisten eskuetan jausi zenean, Jose Maria Arizmendiarrieta apaizgai gazteak ihes egin zuen Iruñera. Bazekien *Eguna* euskarazko egunkarian kazetari lanak egin eta gero, arriskuan zegoela. Nafarroako hiriburuan, aldiz, komentzitu egin zuten itzultzeko. Bilbora iritsi zenean, Markinako taxi gidari ezagun batekin egin zuen topo eta hark salatu. Atxilotu eta gerra auzia egin zioten. Gero ministro izan zen Garicano Goñi izan zuen akusatzaile. Txirripaz libratu zen heriotzetik.

Abadetu ostean, lehen meza esan zuen Markinan. Eskua muin ematera etorri zitzaizkion artean taxista salataria zegoen. Bat batean, On Jose Mariak kendu egin zion eskua. Ezustekoa pasatu ondoren, luzatu egin omen zion.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Oca. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arrolabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakileak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Kamele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankeo kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta intzientzian erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

EUSKAL SELEKZIOAREN BEHARRA

Azkenaldian ugaltzen ari dira Euskal Selektzioaren aldeko iritziak, ekitaldiak eta proposamenak, zorionez. Bistan da ESAITek txalotu egiten dituela Euskal Selektzioa nazioarteko jardunean ofizialki ikusi bitartean antola daitezkeen ekimenak, denak ere beharrezkoak izango baitira.

Nolanahi ere, ESAITek argi utzi nahi du ez duela zerikusirik aldarrikapen hori etekin pertsonala bereganatzeko erabiltzen duten horiek, hori ez baita ESAITen helburua, Euskal Selektzioaren beharra zoko guztietara zabaltzea baizik.

Horregatik, ESAITek hau jakinarazi nahi dio euskaldun orori:

1- ESAITek ez ditu onartzen etekin pertsonal edo lukratiboa eskuratzeko, azkenaldian antolatzen ari diren ekimen pribatuak eta are gutxiago, hauek ESAITen izena erabiltzea.

2- Berrito horrelako zerbaite gertatzen bada, salaketa sozialaz gain, ESAITek ez du alboratzen bide juridikoari ekitea.

3- ESAITek ez du inolako erantzunkizunik hartuko antolatzen ez dituen ekitaldietaz.

Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea ESAIT

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 26

- Azkoaga, Ferrerías

Larunbata, 27

- Azkoaga, Iturriotz

Igandea, 28

- Korkuera, Musakola

Astelehena, 29

- Irizar, Erguin

Astearte, 30

- Amezua, Santa Marina

Asteazkena, 1

- Zabala, Zarugalde

Osteguna, 2

- Ruiz, Maalako Errabala

ARRASATEKO EMAKUMEAK ETA SOLDATA SOZIALA

Etzeko lana, emakumezkoek egiten duten "lan ikustezinaren" parterik handiena da. Lan honen kuantifikazioak eragingo lukeen ekarpen ekonomikoa, herri industrializatuen produktu nazional gordinaren %40 dela esan ohi da. Lan hau egiten duten emakumeak ez dira ekonomikoki aktibo kontsideratzen, nahiz eta astean lan horri 35 eta 65 ordu inguru dedikatu.

Horrez gain, emakume askok lanaldi bikoitza egiten du, kalean eta etxean, eta pertsona nagusi eta gaixoak zaintzea euren esku izaten da nagusiki.

- Emakumeek, batez beste, gizonezkoek baino %30 gutxiago kobratzen dute.

- Lan egiteko adinean dauden emakumeen %70ek ez dute lanposturik.

- Behin-behineko lan kontratuen %76 emakumeenak dira.

- 55 urte baino gehiago duten emakume alargunek soldata minimoa baino txikiagoa den pentsioaz bizi behar izaten dute.

Euskal Herriko emakume gehienok bizi dugun egoera antidemokratiko honen aurrean, senarrarekiko, familiarekiko edo eta karitatearekiko dependentzia ekonomiko honen aurrean, beharrezko ikusten dugu lan mundua berrantolatzea. Generoaren perspektiba batetik, lan orduen gutxitzearekin, lanpostu bat

lortzeko aukera bideratuz, denbora librearen, etxeko lanen eta senideak zaintzearen korrespontsabilitatea gizonen eta emakumeen berdintasunean bideratuz.

Beharrezko ikusten dugu etzeko lana eta gizarteko lana kontabilitate nazionalean barneratzea. Gizarte soldata kobratzeko edo eta lan mundura sartzeko, eredu sexista baten ondorioz, aukerarik ez duten emakumeen eskubideak onartzea.

Pertsona bat, lanpostu bat.

Pertsona langabetu bakoitzeko, hilean 82.000 pezeta gizarate soldata.

EGIZAN, ELA, LAB, CC.OO., ESK, EH eta IU taldeetako emakumeak

ARRASATEKO HERRIARI

Eskualde guztiko Euskal Presoak Euskal Herrira Gazte ekimenak bultzatutako ekintza bat proposatzea da gutun honen helburua. Espainiako eta Frantziako presondegiatiko legeriak betetzea esigutu behar diegu bi estatu hauetako instituzio politiko, juridiko eta espetxeetako instituzioei. Aipatutako legeriak honela dio:

- Euskal Presoek Euskal Herrian egoteko eskubidea dute, senideengandik hurbil.

- Gaixotasun larria duten presoak askatu egin behar dira.

- Zigorren hiru-laurdenak beteak dituztenek, baldintza-

peko askatasunean egon behar dute.

- Presondegiatan presoek giza eskubideak errespetatu behar dira.

Guztiok ezagutzen dugu euskal presoek bizi duten egoera. Egoera hori salatzeke eta lehenbailehen aldatzeko presio soziala derrigorrezkoa dela ikusirik, herritar guztion inplikazioa lortu behar dugu eta ondorengo ekimena proposatzen dugu:

Eskualde osoko establezimendu publiko, denda eta abarretan "Euskal Presoak Euskal Herrira" dioen kartel-txoa ikusgarri jartzea. Gure lana izango da dendarik dena kartel horiek banatzea, baina horretarako dendarien jarrera zabala ere beharrezkoa dela azpimarratu nahi dugu.

Gai honek duen garrantzia dela eta, herritarron erantzuna bikaina izango delakoan gaude.

Arrasateko EPEH Gazte Ekimena


Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Zer iruditzen zaizu udal pilotalekuari Uarkape izena ematea?

Joan den astelehenean erabaki zuen izena Gobernu Batzordeak



Jose Agirre
(79 urte)
Erretiratua

Ez nekien. Arriaran eta Mondragones zeuden auke-
ran, ezta? Dena dela, Uarkape ipini badiote, hala beharko du, ez?



Egoitz Urizarren
(15 urte)
Ikaslea

Ondo deritzot. Jendeak gustuko baldin badu, ondo ikusten dut.



Eladio Negro
(68 urte)
Erretiratua

Ez zait gaizki iruditzen. Pilotalekua estreinatzen dutenean joango naiz, pilota gustuko dut oso.



Maikel Rodriguez
(16 urte)
Ikaslea

Hala erabaki baldin badute, aurrera.



Marian Elortza
(34 urte)
Etxekoandrea

Ez nekien, baina berdin dit. Dena dela, lekuak izen hori baldin badauka, egokia iruditzen zait.



Maria Pilar Moreno
(60 urte)
Etxekoandrea

Ez nekien, baina ondo ikusten dut. Garrantzitsuena pilotalekua izatea da.



Bittori Altuna
(53 urte)
Etxekoandrea

Oso ondo ikusten dut. Dena dela, ez dit askorik axola.



Jaione Guezmes
(37 urte)
Langilea

Ez nekien, baina agian herriko pilotariren baten izena hobeto litzateke.

Sagardotegia

ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

Danona
KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

26

ostirala

■ ZINEA

Agnes Brown, Alai zinemán, 19:00 eta 22:00.

■ DISKO AURKEZPENA

Bad F-Line eta *Freak XXI* taldeek euren azken lanak aurkeztuko dituzte. Arrasateko Gaztetxean gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera 500 pta kostako da.

27

larunbata

■ ZINEA

Novia a la fuga, 17:00, 19:30 eta 22:00, Alai zinemán.

■ REIKI IKASTAROA

Arrasateko Yoga Elkartearen eskutik, Hasierako Reiki ikastaroa eskainiko du Remedios Serenak. Ordua, 16:00-20:00, Arrasateko Yoga elkarteán. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.

■ KINTO BAZKARIA

1938an jaiotako emakumeek bazkaria izango dute Batzokian. Ordua: 14:00.

■ PAILAZOAK ESKORIATZAN

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez saioa eskainiko dute Eskoriatzako pilotalekuan, Axtroki euskara taldearen eskutik. Ordua: 17:00.

■ GREGORIANO EMANALDIA

Donostiako Easo Abesbatzak kontzertua eskainiko du San Joan Batailatzailearen parrokian 20:00etan. Abendu eta Gabonetako kantak abestuko dituzte.

■ JAM ARETOAN

Rage eta *Nighthwish* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. Saioa 22:00etan hasiko da. Sarrera: 2.300 pta aurrez; eta hantxe 2.500 pta.

28

igandea

■ ZINEA

Novia a la fuga, 17:00, 19:30, eta 22:00, Alai zinemán.

29

astelehena

■ ZINEA

Novia a la fuga, 19:00 eta 21:30, Alai zinemán.

■ KONTSUMOA ETA GABONAK

"Gabonetako sukaldaritza praktikoa, errezeta berriak" hitzaldia antolatu du Eroskiren Kontsumo aretoak. Pedro Gartzia sukaldaria izango da hizlaria. Monterronen, 16:30.

30

asteartea

■ ZINEA

Novia a la fuga, 19:00 eta 21:30, Alai zinemán.

■ GABONAK ETA APAINKETA

"Apain dezagun etxea Gabonetan: loreekin apaintzea" hitzaldia eskainiko du Itziar Lazkano lorazainak, Monterronen, Eroskiren Kontsumo aretoak antolaturik. 16:30.

■ KOOPERATIBAK ETA INGURUGIROA

"Unibertsitatea, kooperatibak eta ingurugiroa" hitzaldia eskainiko du Joaquin Araujok, MUREN HUHEZI fakultatekoan, Eskoriatzan. 19:00.

■ GAZTE FORUMAK

MUKo Jarraik antolatuta EHUko irakasle kaleratuak (Jose Luirs Herrero eta Jose Ramon Etxebarria) arituko dira Eskola Politeknikoko aretoan. 19:00.

"Jokin Zaitegi" oroitzuz lehiaketa



Jokin Zaitegi Plazaola 1906ko uztailearen 26an munduratu zen, "Txomin Txiki" etxean. Baina Arrasateko zein kaletan?

- Erdiko kalean
- Jokin Zaitegi plazan
- Iturriotz kalean

Aukeratu erantzun zuzena eta bidali, zure datuekin, abenduaren 15a baino lehen AEDra (Pablo Uranga kalea 6 behe) edo Arrasate Pressera (Otalora lizentziatua, 31). Jasotako txartel guztien artean "Euskal Herria eta bere herrialde historikoen kondaira" mapa eta liburua zotz egingo dira.



Izen-abizenak:

Helbidea:

Teli:

Erantzun zuzena:

1

asteazkena

■ JOSTAILUAK HIZPIDE

"Jolasa eta jostailuak: haur eta nagusien kontua" hitzaldia eskainiko du Gotzon Gonzalez Auzmendi aholkulari eta pedagogoa Monterronen, Eroskiren Kontsumo aretoak eraturik. 16:30.

■ GAZTE FORUMAK

MUko Jarraik antolatuta, Lizarra Garazi izango dute hizpide Eskola Politeknikoan, alderdi politikoetako kideen eskutik. 19:00.

■ GIZA BAZTERKETAREN AURKA

Larunbatean, azaroaren 27an, Giza bazterketaren aurkako kale agerraldia egingo da Bilbon. ELA sindikatuak autobusak antolatu ditu hara joateko. Irteera orduak honako hauek izango dira: Eskortza: 15:30; Aretxabaleta: 15:45; Arrasate: 15:50 eta Bergara: 16:00.

■ PSIKOESTIMULAZIOA

"Psikoestimulazioa demenzietan" ikastaroa antolatu du ICTE zentroak. Abenduaren 13an hasi eta 17a arte iraungo du. Argibideak 943 77 16 99 zenbakian.

■ SORMEN LANTEGIA

Arantxa Arriaga terapeuta eta Antonio Lopez de Lerma psikologoak sormen lantegia eskainiko dute Aretxabaletan, abenduaren 11 eta 12an. Argibideak: 943 13 29 76.

■ LAN ORIENTABIDEA

"Lan orientabide ikastaroa" antolatu du Arrasateko Udaleko Emakume sailak. Abendutik martxora bitartean izango da IMIren egoitzan. Izen ematea azaroaren 30era bitartean dago zabalik. Argibideak: 943 79 41 39.

■ MENDI IRTEERA

Besaide mendi elkarteak irteera antolatu du Gredosera, abenduaren 4tik 8ra bitarteko. Izen ematea, azaroak 23-25, 19:30-20:30 orduetartean. Besaideren egoitzan.

■ NORTASUN AGIRIAK

Azaroaren 29an, astelehenean, NAN jasotzeko aukera izango dute honako zenbakiak dituztenek (ordutegi hauetan): 791-830, (09:45-10:45), 831-870, (10:45-11:45), 871-910 (11:45-12:45), 911-940, (12:45).

■ UNICEFEN LEHIAKETA

Euskal Herriko UNICEF Batzordeak haurren eskubideen esanahia sustatu nahian eta Haurren Eskubideen Aldeko Hitzarmenaren X. urteurrena dela eta, lehendabiziko "Zu bezalako haurrak" argazki lehiaketa antolatu du, 12-17 urte bitarteko haurrei zuzendua. 8-11 urte bitarteko haurrentzat "Zu bezalako haurrak" idazlan lehiaketa antolatu du UNICEFek. Abenduan zehar aurkez daitezke, UNICEFen edozein bulegotan. Argibideak: 943 27 11 61.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

"Irakurtzeko plazerra" izeneko argazki erakusketa egongo da ikusgai Monterronen azaroaren 30a arte. Ordutegia: lanegunetan, 18:00-20:00. Jaiegunetan, 12:00-14:00/18:00-20:00.

■ AMODIOZKO GUTUNAK

Berrigara aldizkariak Amodiozko Gutunen VIII. lehiaketa deitu du. 1985ean edo lehenago jaiotako edonork har dezake parte. Argibide gehiago Jardun Elkartearen, Bergaran. Lanak urtarrilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira.

■ MARGO ERAKUSKETA

Valentin Aranek bere lanak jarri ditu ikusgai Harresi aretoan, azaroaren 28a arte. Ordutegia: 18:00-20:00, lanegunetan eta 12:00-14:00 eta 18:00-20:00, jaiegunetan.

■ ETB-K MEZA PARROKIATIK

Azaroaren 27an San Joan Bataiatzailea parrokian iluntzean emango den meza grabatu eta azaroaren 28an eskainiko du ETBk, goizeko 10:30ean. Liturgi urte-berrian sartzen garela eta, Easo Abesbatzaren Gregoriano kaperak parte hartuko du. Ondoren gregoriano kontzertua izango da.

■ LITERATURA LEHIAKETA

XIII. Arrasate lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. AEDk antolatzen duen lehiaketa honek atal ugari ditu. Argibideak AEDn jasoko dituzue.

■ GABONETAKO AZOKA

Gabonetako IV. azoka antolatu du AGAKOK. Bigarren eskuko gauzak erosteko aukera eskaintzen du azokak. Helburua Gabonetako kontsumismo itzel eta eroa salatzea da, gauza zaharrak birziklatzea bultzatuz. Lortzen den dirua "bailaran egingo diren sarraskien aurkako taldeentzat" eta Arrasateko Gaztetxearentzat izango da. Hori dela eta, arropa, disko, liburu, traste zahar eta antzekoak Gaztetxera eramatea eskatzen dute, azokan salgai jartzeko.

2

osteguna

■ ZINEA

De ladrón a policía, Alai zineman, 19:00 eta 21:30.

■ GAZTE FORUMAK

MUko Jarraik antolatuta, Udalbiltzari buruz arituko dira EKINeko kideak Eskola Politeknikoan. 19:00.

USTEAK USTE

Gerraosteko Arrasate

Asteartean afari bat izan genuen bizirik dauden kooperatibetako sortzaileekin, Alfonso, Jesus eta Jose Marirekin. Gai bakarra genuen: On Jose Maria Arizmen-diarieta.

Horren inguruan, gerraurreko Arrasate, 34ko gertaerak, Gerra Zibila eta gerraostea izan genituen hizpide: Union Cerrajera, Aprendices eta Biteri eskolak... eta On Roberto Agirre mirestua ordezkatzera Barinagatik etorri zen abade gazte irribarretsu hura.

On Jose Luis Iñarra, Camilo Basterretxea, Chacon, Juan Jose Etxabe, Peixoto, Txomin Iturbe eta bestelako herritarrekin izan zituen harremanak errepasatu genituen. Jendearengan ilusioa pizteko zuen iaiotasuna, inork baino haratago begiratzeko gaitasuna eta proiektuak aurrera eramateko erabakitasuna.

Elkarriketa goizeko ordu txikietan irristatu ahala, ohiz kanpoko gizon haren itzala handiagotzen zihoan. Inork ez du mende honetako Arrasate, hark beste aldatu.

Joxe Aranzabal



Anorexiaren aurrean zer

* Eugenio Iturriotz

Jateari ezetz esatea da anorexia. Gizarte modernoarekin batera, zabaltzen ari da gazteengan.

Hasiera batean itxura ederragoa lortzeko gogoia izan zitekeena, argaltzeko obsesio eta gaixotasun bilaka daiteke; eta hiltzera ere irits daiteke. Anorexikoek bolumen handiegiko gorputza dutela uste izaten dute. Horregatik, kontu handiz ibili behar da komentario desegokirik ez egiteko. Elikagaiak gutxitzen hasten dira, kaloria asko duten elikagaiak kendu, janaria ahotik atera eta beste nonbait ezkututzen...

Hona hemen neska anorexiko baten esperientzia: "Jaten hasten nintzen eta irensten nuen goilarakada bakoitz 'gramokopuru bat' zen. Nire jatorduak matematika klaseak ziruditen, batuketak egin eta egin. Jatorduak infernua ziren. Lagunartean, nire pentsamenduetan barneratzen nintzen. Tunel batean bakar-bakarrik, eta gero eta beltzagoa zen dena. Barrea

aspaldi ahaztu nuen eta negarra eguneroko ogi zen".

Horren guztiaren ondorioz, jokaera aldaketak agertzen dira: behin eta berriz pisatzea, jantzien tailari begiratzeta, arropa nasaia erabiltzea, argaltasuna ukatzeaz gain, erraz argaltzeko taktiken berri izatea, aktibitate fisikoa eta burukoa areagotzea, umore txarra, harremanetako zailtasunak, urduritasuna eta lorik egin ezina.

Gaixotasunaren zergatiaren berririk ez dago oraindik. Faktore soziokulturalak aipatu izan dira: itxurari ematen zaion garrantzia, faktore psikologikoak; bere buruaren estima urria edo autonomia mai-

la txikia. Gaixotasun hau osasun fisikoan baino psikikoan kokatzea egokiagoa da.

Gaixoari arazo serioa duela ikustarazi eta ez dezala "garai txarra" pasa arte itxaron. Gurasoei arazoaren berri ematen lagundu, gaixotasuna ez ezkutatu, familiak oso eginkizun inportantea du eta.


Pertsona osotasunean baloratu eta ez bere fisikoagatik bakarrik. Taldean integratu eta ez bakarrik utzi. Gaixo hauek bakardaderako joera izaten dute eta horregatik, adinaren arabera, lagunekin edo anai-arrebekin hitz egitea oso lagungarri izaten da.

Pertsona horrekin janariaz eta modaz (janarien kaloria, errezeta eta dietetika eta abarrez) soilik ez hitz egin.

Bere izaeraren gainontzeko ezaugarriak nabarmendu, bere burua maiteago izan dezan. Profesional baten gana zuzendu, laguntza eskuratzeko. Eta gorabeherak izango dituen arren, animatu arazoari aurre egiten jarrai dezan. Argi utzi edozein unetan laguntzeko prest zaudela.

Bukatzeko, osatzeko bidean zegoela ondorengo hau idatzi zuen: "baina egun batez, esnatu eta pentsatzen jartzen zara: 'nik neure burua maite ez badut, nork maiteko nau?' Beraz, tunel beltza atzean utzi eta urratsez urrats argia bilatzeari ekingo diozu, etorritako bidetik itzuliko zara, argia gero eta hurbilago izango den esperantzaz".

* Medikua



DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

astea bi hitzetan

■ **Elurra aurreratu egin da**

Aspaldiko partez, goiz etorri zaigu aurten dama zuriaren lehenengo bisita. Gehienon sorpresarako, ostiral arratsaldean elur malutak jausten ikusi genituen Mondragoen. Baina larunbatean izan ziren irudirik ikusgarrienak. Arratsalde partean, mara-mara bota zuen elurra eta inguru guztia zuritu zuen. Iluntzerako Gatzaga itxita zegoen eta Arlaban mendatea kateekin bakarrik zeharka zitekeen. Arrasateko baserri auzoak ere zuri-zuri agertu ziren, baina ez zuten arazorik izan automobilez mugitzeko.

Duda barik, gatzetxoek gozatuko zuten gehien eguraldiaz eta baita mendizaleek ere.

■ **Erraldoi eta Kilikien II jaia**

Iaz hasitako ohiturari jarraituz, asteburuan Erraldoi eta Kilikien II. jaia ospatu da Mondragoen. Goizean hasi ziren ekitaldiak. Konpartsa eta dultzaineroen eskutik kalejira txiki bat egin zen. Ondoren, eguerdi aldean, guztiak batera bazkaldu zuten, 40 bat lagunek, guztira.

Aldiz, arratsalderako iragarrira zegoen erraldoien eta kilikien dantza saioa, bertan behera geratu zen eguraldi eskasaren eraginez. Hala eta guztiz ere, dultzaineroek hainbat pieza jo zuten arku-petan eta jende multzo polita bildu zen entzutera. Horrez gain, Erraldoi eta Kilikien konpartsak taldearen hormirudiak banatu zituzten jendearen artean.

■ **Batera presoaren alde**

Batera taldeak deituta, kale bilkura izan zen ostiralean Herriko Plazan. Euskal presoaren eskubideak defendatzea eta aldarrikatzea izan zen kale bilkuraren helburua.

Helburu horrekin, Batera taldeak hamabost egunetik behin mota honetako agerraldiak egingo ditu. Hurrengo biak abenduaren 3an eta 17an izango dira. Pasa den ostiralean moduan, iluntzeko 20:00etan egingo da kale bilkura herriko plazan.

Batera Plataforma Euskal Herri osoko hainbat taldek eta giza taldek osatzen duten elkarte da. Mondragoen ere hainbat taldetako jendea biltzen du.

■ **Beldurrezko zine maratonia**

Beldurra nagusi izan zen domekan Amaia Antzokian. Arratsaldeko 17:00etatik 3 film labur eta beste 3 luze eman zituzten, guztiak, zein baino zein beldurgarriagoak. Tinieblas Gonzalezen *The Raven* laburra izan zen lehenengoa. Ondoren *The Stormriders* film luzea eman zen, pasa den urtean Hong-Kongen egindako superproduktzioz garrantzitsuena. Segidan *Abuelitos* film laburraren txanda izan zen eta ondoren, David Lynch zuzendariaren *Elefante gizona* filmarena. Bukatzeko, *Viet-Nam* film laburra eta *Angel of the Night* film luzea eskaini ziren. Ostiralen Lasarten (22:00) eta larunbatean Ordizian (22:00) eskainiko dute beldurrezko zine maratonia.



“Eta gizon handi horren (Arizmendiarietaren) omenezko hitzordura zuzendaritzako eliteko ia ‘izendegi’ guztia falta izan da, haren ikasle izatera deituak izan arren. Ostiral aztoratu eta ludikoaren lainoen artean lausotzen dira. Minutu batzuek norbere baitan biltzearen aurretik jartzen da mauka eta martxa beteko aisialdia.

Ormaetxea nire adiskideak aingeruek bezain ondo erabiltzen ditu zenbakiak eta kalkulu hau egin du: MCC Konplexuko gonbidatuen %15 etorri da, Euskadiko Kutxak gonbidapenak pertsonalki eta garaiz bidali arren.

‘Arizmendiren’ komunitate eta kooperatibismo ereduaren inguruko berotasun ideologikoa ekitaldiko asistentziaren antzekoa bada, konponduta gaude”.

JESUS LARRAÑAGA

TU-Lankide
1999ko urria

**FELIPE
MADINA
ZURAK**
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**Hilbera
kafetegia**
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

Jaiotzak

- Sergio Fernández Varela. Azaroaren 2an.
- Ainhoa Vilches Beitia. Azaroaren 4an.
- Eñaut Bergaretxe Otadui. Azaroaren 6an.
- Martin Corbella Zubizarreta. Azaroaren 10ean.
- Leire Cáceres Aldai. Azaroaren 14an.
- Ekiñe Apellaniz Otxoa de Retana. Azaroaren 16an.
- Andrea Da Silva Renda. Azaroaren 19an.
- Alba Da Silva Renda. Azaroaren 19an.

Ezkontzak

- Juan Luis Uribarren Sagasta eta Saioa Irazola Gaztañaga. Azaroaren 13an. Zibilez.
- Zigor Diéguez Zubiaga eta Isabel Bouzon Labandeira. Azaroaren 20an. Zibilez.

Hildakoak

- José Ramón Sarasola Sarasola. 68 urte. Azaroaren 7an.

MCC esportatzaile

Mondragon Kooperatiba Korporazioa estatu espainiarreko 8. talde esportatzailea da, *Actualidad Económica* aldizkariak kaleratutako datuen arabera. Iaz 240.000 milioi pezetako salmentak egin zituen MCCk nazioartean.

Enpresaz enpresa, berriz, inguruko hainbat kooperatiba ere agertzen dira sailkapen horretan. Fagor Elektratresnak, adibidez, 69.a da; Fagor Ederlan 109.a; Aretxabaletako Copreci 202.a eta Fagor Arrasate 278.a.

Datu hauek iazkoak dira, baina azken urtean atzerrian egindako negozioak areagotu egin dira MCCn.

Udal pilotaleku berriak Uarkape izena hartu du



Herritarren proposamenak alde batera utzita, udalak etimologia hartu du irizpide moduan izena erabakitzeko.

Makina bat ika-mikaren ondoren, dagoeneko erabaki du udal pilotaleku berriaren izena: Uarkape Udal Pilotalekua. Halaxe erabaki du aste honetan Gobernu Batzordeak.

Dakizuenez, pilotalekua-ri izena jartzeko proposamen bat baino gehiago egin da herrian. Bi izan dira nagusi, ordea: Arriaran II edo Mondragones.

Arrasateko pilota taldea, Juan Bautista Azkarate "Mondragones" izenaren alde azaltzen zen. Pilotari beteranoren lagun taldea, oster, Joxe Arriaran II.aren alde.

Herritarrek ere bataren zein bestearen alde egiten hasi ziren kalean. Kontuak kontu, batzuen pozerako eta beste batzuen amorrurako, azkenean ez bata eta ez bestea. Udal Gobernu Batzordeak du azken hitza auzi honetan eta kokalekuaren izen bera hartuko duela erabaki du.

ZERGATIA

Erabakiak badu, baina, arrazoia. Etimologikoki hitz aberatsa da; antzinako izena da Uarkape. 1462. urtean jaso zen Mondragoeko idazkietan aurreneko aldiz eta Euskal

Herrian oso ezaguna ez den hitza da. Urarekin du zerikusia bere esanahiak: ur asko batzen den lekua esan nahi baitu "uarka" hitzak. Esanahiak berak ere jatorri bitxia du. Historiaurreko Tertziario garaian lur-jausia izan zen gune horretan, eta barrenean zihoan ibaiaren ibilbidea aldatu. Erreka hori gaur egungo Aramaio erreka da, hasieran Uarkapetik pasatzen zena. Horrez gain, iturri bat ere bazegoen lehen inguru horretan, ur asko ematen zuena. Uarkape izena emateko nahikoa arrazoi, beraz.

Aita Benito Menni, santu

Aita Benito Menni santu egin zuen Aita Santuak pasa den igandean. Vatikanoko San Pedro Basilikan izan zen santutze ekitaldia; Arrasatetik ehun bat pertsona joan ziren Erromara.

1898ko ekainaren 1ean inauguratu zuten Santa Age-

dako Osasun Etxea Aita Benito Mennik, Añibarro sendagileak, Ospitalarioetako zenbait lekaimak, San Juan de Diosen zenbait anaiak eta 50 bat gaixok. Sasoi batean bainu etxe izandakoa Euskal Herriko lehenengo zentro psikiatriko bihurtu zen orduan.




Giza Bazterketaren aurkako ekimenak egin dira herrian

Larunbatean Giza Bazterketaren aurkako ibilaldia Mondragoetik pasatu zen. Eguraldia lagun izan ez bazuen ere, atzerapenik gabe heldu zen Eroski parera eta hainbat arrastearren ongi etorria jaso zuen. Gizarte Eskubideen Gutuna onartzea eta gauzatzea da ekimen honen helburua.

Honekin lotuta, herriko sindikatu guztiek eta Egizan taldeak giza bazterketaren aurkako mozio bat aurkeztu zuten pasa den osteguneko osoko bilkura berezian. Mozio hori onartu egin zuen udalbatzarra.

12 puntu zituen mozioak. Azkenean, tirabira nahikotxoren ondoren, puntu batzuk kendu eta beste bat gehitu zioten mozioari. Bozketa garaian, 10 puntu bozkatu ziren eta EH, EB eta EAren aldeko botoekin onartu. Puntu bakarrean izan ezik, beste guztietan PSOE abstenitu egin zen eta horrez gain, talde horrek kritika zorrotza egin zion mozioari, demagogia hutsa zela esanez. EAJK, berriz, mozio osoaren aurka bozkatu eta alderdi horrek ere demagogikotzat jo zuen.



Jende askok egin nahi izan zion ongi etorria Ibilaldiari.

- Herri Legegintza Ekimenarekin bat egitea eta Gizarte Eskubideen Gutuna bere egitea.
- Gizarte soldataren ezarpena eskatzea Jaurlaritzari.
- Gizarte Eskubideen Gutunari buruz egiten ari den elkartasun ibilaldia bultzatzea, ibiltarien ostatu eta janari gastuak bere gain hartuz.
- Udaleko lanastea 32 ordura jaistea.
- Langile funtzionarioak 60 urterekin erretiratzea, lan gehiago sortzeko.
- Udal langileen enplegu-aniztasuna saihestea.
- Udalerriko enpresa guztietan aparteko orduak baztertzea eta horiek lan egonkor bihurtzea.
- Pobreziaren mugan bizi direnen udal zergen ordainketaren EAJ-EA koalizioako hiru zinegotzik aurkeztutako mozioa.
- Erabakitako guztia herritarrei jakinaraztea.

Legarre pabilioia erosteko eskaintza

Legarre Pabilioian dauden lokalak erosteko eskaintza egitea erabaki du udalak. Izan ere, jendea eraikin hartako lokalak erosten edo alokatzen dabil, eta gerora begira, nahiz eta pabilioi hori desagertu egingo dela agintzen duen Lurralde Antolamendurako Egitasmoak. Hori dela eta, eraikina botatzea erabakitzen denean, gestioa edo kudeaketa errazteko egiteko erabaki du udalak lokalak erostea.

Udalak hiru lokal mota bereiztu ditu erosketa egiteko garaian eta bakoitzari dagokion salneurria ezarri du:

Merkataritza izaerako lokalak:

m²ko.....33.328 pezeta.

Biltegi izaerako lokalak:

m²ko.....28.151 pezeta.

Goiko lokalak:

m²ko.....19.706 pezeta.

Salneurri hauek aldaezinak izango dira urtetan.

Presoen eskubideak mintzagai

Azaroaren 13an Mitxel Sarasketa eibartar preso oiha Mondragoen izan zen hitzaldia ematen. Presoen eskubideei buruz aritu zen. Oinarri demokratikoak ere landu zituen. Presoak Euskal Herriaren eraikitze proiektuan parte hartzeko duten eskubideari buruz ere hitz egin zuen. Amnistia eta Espainiako indar armatuen kanporatzea ere aipatu zituen.



Ekologistak batera lanean



Monterronen bilera egin zen asteartean, honako helburu honekin: Debagoienean egitear diren herrilan handiak direla eta, talde bat sortzea herritarren senti-

bilizazioa lortzeko. Batzar-kideek Lastertasun Handiko Trena, Olandixoko tunela, harrobiak eta Eibar-Gasteiz autobidea izan zituzten hizpide.



BERGARAKO KOADRILA EDERRA ARKON

Mariaren Lagundikoak dira argazkiko neska-mutiko hauek. Jakinminez beteta etorri zitzaizikigun bisitan 2.

mailako A eta B ikasgeletako 6-7 urteko 36 pertsonatxo hauek. Gero lan bat egin behar zutela eta, galderaz josi

gintuzten. Azkenean, baina, gustura samar joan zirela zirudien.

GAZTAINAK ERRE ARTEAN...

Begira zein ondo ospatu zuten Erguin Herri Eskolakoek Gaztañerre eguna! 60 kilo gaztaina erosi zituzten eta 30 kilo erre. Hautxoak gustura ibili ziren suaren inguruan gaztainak dastatzen, buelta eta buelta, zeinek gehiago jan!





Fagor kooperati-
bak bazkari
oparoa eskaini
ziren hil honen
5ean, iaz eta
aurten aurrejubila-
tu diren 58 lan
bazkideei. Guztira
109 lagun elkartu
ziren Arantzazuko
Zelai Zabal
jatetxean.

IZENAK

Iñaki Aranburu

Garai batean
ARKoko
zuzendaritza
batzordeko
lehendakaria,
orain Olaker
ikerkuntza eta
prestakuntza zentroko zuzenda-
ria da. Antzuolan dagoen
Goizper kooperatibako ikerkun-
tza zentroa da Olaker.



Ander Elortondo

30 urteko arrasa-
tear hau izango
da aurrerantze-
an AEDko
idazkari
orokorra.
Aurpegi ezaguna
gingo zaizue, izan ere, orain
arte Udal Liburutegian ibili da
lanean.



ELURRA URTZEA LORTU ZUTEN

Eguraldi eskasak ez zuen lortu
Mondragoeko dultzaineroak
ixilaraztea. Erraldoi eta Kilikien II
jaialdian jo eta fuego aritu ziren
giroa berotu nahian. Eta baita lortu
ere! Makina bat mondragoetar
gerturatu zen udaletxearen
arkupetara dantzara eta kantura.



Lasai, lasai, ez larritu, ez
dira estralurtarrak, Musakola
Herri Eskolako ikasleak
baizik.

Ajangizen (Bizkaian)
dagoen "Lurraska" Natura

Eskolan egindako egonal-
dian atera zuten argazki hau,
erlagintzako lantegian.

Aurrera bolie, aurtengo
eztixe, igezkue baino hobie.

Eguneroko joan-etorri zoe

Mondragoe nahiko ezaguna da hemendik kanpo. Makina bat arlotan, gainera: kulturen, industrian, hezkuntzan... Honek guztiak jende ugari erakartzen du herrira. Ez Mondragoe ezagutu nahi duen jendea bakarrik, baizik eta hona lanera edo ikastera datorren jendea bereziki.

Zenbakietara jotzen badugu, hortxe ikusten da Mondragoera lanera edo ikastera etortzen den jende kopurua hemendik kanpora joaten denaren bi halako dela.

Euskal Herriko Estatistika Zentroak emandako azken datuen arabera, egunero 4.444 pertsona etortzen da kanpotik Mondragoera lanera. Arrasatetik kanpora, berriz, 2.409 joaten dira. Horrek esan nahi du egunero 2.035 pertsona gehiago izaten dela Mondragoen.

Horrez gain, badira eguneroko joan-etorria egin barik, Mondragoera lanera eta ikastera etorrita astean zehar behintzat hemen bizi direnak ere.

Jende kopuru hori erakartzen duten hiru gune nabarmen daitezke: lana, hezkuntza, eta osasuna.

LANA

Atal honen barruan industria da nagusi. 5.526 lagun era-

kartzen ditu egunero Mondragoen industriak. Hauetatik 2.008 kanpotik etortzen dira eta horietatik 1.399 herrian bizi dira.

Izan ere, Mondragoeko ekonomia jardueraren %57,50 industrian eta eraikuntzan oinarritzen da. Atal honen barruan adibiderik nabarmenena MCCren kasua da. Inguruko eta urrunagoko herrietako jende asko egunero-egunero Mondragoera etortzen da lanera. Adibide bat ipintzearren, Fagorrera egunero autobus bat etortzen da Donostiatik. Baita Ikerlanera ere. Bigarren enpresa horren kasuan, esan beharra dago gainera, langile gehienak kanpokoak direla, gehienak gasteizarrak, bilbotarrak eta donostiarak direla; EAEko



MCCko enpresak dira kanpoko jende gehien erakartzen dutenak.

hiriburuetaoak, beraz.

Bestalde, nahiz eta industria jarduera ez izan, aipatzekoa da Mondragoen zerbitzuek izan duten gorakada. Herriko ekonomia jardueraren %41,33 betetzen dute zerbitzuek. 5.148 pertsona erakartzen dituzte. 1.360 kanpotik etortzen dira eta horietatik 874 hemen geratzen dira aste barruan.

Kasu honetan ere aipamen berezia egin behar zaio MCCri. Izan ere, taldeko banketxeak, Euskadiko Kutxak egoitza nagusia Arrasaten baitauka. Zerbitzuen barruan bi arlo nagusituko liriteke, gainera:

Osasuna

Hementxe dago Eskualdeko Ospitalea. Horrek esan nahi du Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko herritarrentzat tokian tokiko anbulatorioez gain, Mondragoe dela osasun-gunea. Osasun zentro horretako langile asko ere kanpokoak dira, noski.

Bestalde, ezinbestekoa da Aita Menni ospitalea aipatzea.

1898ko ekainaren 1ean inauguratu zenean, Euskal Herriko lehengo psikiatrikoa izan zen. Orain, Euskal Herrian zentro psikiatriko gehiago egon arren, European buru-osasuneko zentro aurrera-



Eskualde Ospitalaren eraginez inguruko jende asko dator herrira.

oa



tiko jendea etortzen da.

Hezkuntza

Atal hau ere benetan aipagarria da Mondragoeri buruz hitz egiteko orduan. Izan ere, Mondragon Unibertsitatea hementxe dago.

Gipuzkoako ikasleak jasotzen ditu gehienbat unibertsitate honek, baina bere izena gero eta gehiago hedatzen ari da Euskal Herriko beste herrialdeetan zehar. Bilbo eta Durangaldetik, adibidez, Mondragon Unibertsitateak gero eta jende gehiago erakartzen du.

ONDORIOAK

Jario honek, noski, eragina du herrian, eta ez makala. Herriko hainbat arlotarako onuragarriak dira joan-etorrien ondorioak. Beste arlo batzuetan, aldiz, kaltegarriak izaten dira ondorioak.

Dendariak

Gremio honetako kideek pozik hartzen dituzte kanpotarrak. Asko igartzen omen da salmenetetan Mondragoek egunero izaten duen atzeraurrera. Izan ere, aste barruan hemen lanean edo ikasten dabiltzanak, euren erosketak egiteko aprobetxatzen dute izaten duten denbora librean. Edo bestela, asteburua erabiltzen dute falta zaizkien erosketak egiteko. Mertxe Trojaola Ibai Arteko lehendakariak adierazi digunez, "asteburuan Arrasatera erosketak egitera etortzen diren gehienak kanpotarrak izaten dira; pentsa, Durangotik hona etortzen da erosketak egitera bat baino gehiago...".

Astebarruan mota guztietako dendek antzematen dute jendearen ugaltzea: arropadendek zein eguneroko beharretarakoek (janari dendak...). Asteburuan, berriz, jantzi-dendek eta kiroletakoek igartzen dute gehien jendearen emana.

Mertxe Trojaolaren esanetan, "gero eta argiago ikusten da Mondrago Debagoieneko hiriburua dela eta hori gure negozioetan asko igartzen da".

Ostalaritza

Hauek ere majo ohartzen dira Arrasatera etortzen den jende mordoskaz.

Kasu honetan, gainera, erdialdeko tabernez gain, auzo jakin batzuetakoek edo jate-txeek ere badakite zer den jendearen joan-etorria, San Andres auzoak, adibidez. Han inguruan, eta Eskola Politeknikoaren eraginez, astegunetan askoz ere lan gehiago izaten dute taberna eta jate-txeek. Edozein asteburutan baino lan eta, ondorioz, irabazi gehiago lortzen dute astean.

Herriko beste puntan, Musakolan, egoera berean dago jate-txe bat baino gehiago.

Trafikoa eta errepideak

Hauxe da, jendearen mugimendua hain ondo hartzen ez duen arloetariko bat. Eskoletara zein lantegietara autobusak etortzen dira egunero, eta noski, autobusez ez bada, automobileraz etortzen da jendea eta ibilgailuen ugaltze horrek zaildu egiten du trafikoa herri barruko zein herrira sartzeko errepidetan.

Esan gabe doa, errepideak direla Mondragoera egunero etortzen direnen kexurik nagusietako bat. Eskas samarraz gainera, Arrasateko errepideen egoera nahiko kaskarra dela uste dute gehienek.

Ingurugiroa

Mondragoeko kutsaduraren zati handi bat, trafikoari leporatu behar zaio eta, noski, ondorioz, zuzenean dago lotuta eguneroko joan-etorriekin.

Honetaz gain, Mondragoen hainbeste jende ibiltzeak sortarazten duen zaborra ere kontuan hartu behar da. ■

Ubane Madera

Informazio Iturria:
Udaleko Enplegu Batzordea

tuenetakoa dugu. 1992 urtean sekulako bultzada jaso zuen ospitaleak. Berrizte lanak egin ziren orduan eta 2.262 milioi pezeta inbertitu, eta gaur egun igarri egiten da. Ospitale honek daukan eguneko zentroetara Eibartik hasi eta inguru guz-

Dendariak eta tabernariak asko igartzen dute aste barruan Mondragoek bizi duen jendearen joan-etorria.

- Mondragoen 11.200 pertsona dabilta lanean.
- Hauetatik, 4.444 lagun kanpotik datoz.
- Industrian, 5.526 ari da lanean. 2.008 kanpotik dira.
- Azken hauetatik, 1.399 herrian bizi dira aste barruan.
- Zerbitzuetan, berriz, 5.148 pertsona ari dira lanean.
- 1.360 kanpotik datoz. Hauetatik 874 hemen bizi dira.

Mondragon Unibertsitateak master bat sortuko du kudeaketa sistemak lantzeko

Mondragon Unibertsitateak eta Vanenburg Business Systems enpresak hitzarmen bat sinatu zuten azaroaren 15ean, EBP (Enpresa Baliabideen Planifikazioa) gestio sistemak zabalteko, bai unibertsitateko ikasleentzako eta baita Arrasateko enpresentzako ere.

Hitzarmenaren ondorioz, gainera, Graduatuondoko Master bat sortuko da datorren ikasturtean, Ingeniaritza eta Enpresa ikasketak egiten ari diren ikasleentzat. Master horretan EBPrenginguruan Vanenburgeko Makinaria egileei eta Autogintzaren hornitzaileei eskaintzen dizkien soluzioak aztertuko dira.

Hasiera batean Oñatiko Enpresa Fakultateko (ESEO)



Jabier Retegi, MUKO errektorea, hitzarmena sinatzen.

irakasleek irakatsiko dituzte alor horretako ezagutzak. Ondoren, fakultate horretako irakasleek eta ikasleek ezarriko dituzte, praktika bidez, EBP

soluzioak, hala eskatzen duten enpresentzako.

Ekimen honi esker, ikasleek prestakuntza teoriko eta praktikoa jasoko dute

gestio sistemetan. Hori horrela izan dadin, Vanenburg enpresak Baan programa informatiko berezia ezarri du Mondragon Unibertsitatean, prestakuntzarako erabiltzen diren soluzioak bateratzeko asmoz.

VANENBURG

Vanenburg Business Systems enpresa lider da industria eta banaketa enpresentzako gestio soluzioak eskaintzeko orduan. Batez ere enpresa txiki eta erdi mailakoekin egiten du lan. Holding handi bateko kide da Vanenburg eta 17 herritan ditu filialak. Espainian 200 bezero ditu eta munduan 7.000 inguru. Bilbon ere baditu bulegoak.

**Zure hildakoen
eskela,
eskerrona edo
urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Arrasate Pressen eta
ATBn.**

Argibideak ☎ 943 71 23 91



JENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

Arrasate Pressen eta Berrigararen, 2. eskuko autoen aldizkaria.

10. zenbakia. 1999ko azaroa.

Merkataritza teknikaria: Idoia Pozo.

Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trubxuelo. Tirada: 11.600 ale.

Berrigara

Arrasate
P R E S S

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tel.: 943 76 09 30				
Peugeot 306 Sedan SLD				*5
Peugeot 205 D			AG, LD	*3
Peugeot 205 1.4			IZ, KE	*4
Peugeot 306 Break D				*6
Peugeot 205 D			AG, IZ, KE, LD	*5
Renault 19 1.8				*3
BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tel: 943 76 22 43				
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	AH,LD,KE,IZ,LK	*3
Ford Escort Familiarra 1.6 16v	SS-AS	1994	LD,KE,IZ,Airbaga	*4
Fiat Tipo 1.6 DGT	SS-AK	1991	KE,IZ	*2
Ford Escort RS Turbo	SS-AI	1990	ABS,Autoblock ,AH	*3
Renault Supercinco 17 GTX	SS-AB	1988	AH,KE,IZ,A	*1
Audi 80 18E	SS-AB	1988	LD,4 KE	*3

A: Alerioia AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoa
KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako traxzioa LK: Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoa

*1: 300.000 PTArate arte
*2: 300.000-500.000 PTA
*3: 500.000-750.000 PTA
*4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
*6: 1.500.000-2.000.000 PTA
*7: 2.000.000 PTatik aurrera

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tf. 943 76 13 84

 **IVECO**

Garraioaren mundua

 **OÑATI GARAJEA, Koop. Elk.**
Peugeot Agentea

**MOTA GUZTIETAKO AUTOEN
KONPONKETA OROKORRA**

- Karrozeria, txapa, pintura...
- Mekanika, elektrizitatea...

Goribar auzoa, 9 • 20560 OÑATI • Tel.: 943 78 13 50 • Faxa: 943 78 33 69

 **AGUSTIN**

Automobilaren
karburazio eta
elektronika 

Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

 **SAN MARTIN
KARROZERIAK**

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

LAGUN GARAJEA 

Javier Gallastegi Arenaza Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!
Santalaitz 3. Bergara. Tf. 943 76 11 20

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tel.: 943 76 47 74				
Peugeot 205 Rallye	SS-AF	1989	AH/IK	Kontsultatu
Hyundai Coupe Turbo 1.5	SS-AT	1994	AH/LD/KE/IZ	Negoiazteko
Ford Escort 1.6 16v	SS-AS	1994	IK,Airbaga,A	Kontsultatu
Opel Corsa 1.4	SS-AL	1992	E,S,3 ate	Prestatzen
Opel Astra 1.6 i 16v	M-XF	1999	AG,ABS,Airbaga,KE,IZ,LD	Kontsultatu
Opel Vectra Caravan 16v	M-BL	1999	AG,ABS,Airbaga,KE,IZ,LD	Kontsultatu

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera



Aukerako Autoen I. Erakusketa

Azaroaren 6an eta 7an, Aukerako Autoen I. Erakusketa egin zen Arrasateko Arruenako parkean. Debagoieneko bederatziti kontzezionariok antolatu zuten erakusketa. Opel, Citroen, Audi eta Peugeot modeloeako autoak ekarri zituzten. Era askoko prezioak ikusi ziren, modelo, egoera eta matrikularen arabera: 300.000 pta.tik 7 milioi bitartean, hain zuzen ere.

Beste bailara batzuetan lehenago ere egin izan dira honelako erakusketak, baina gurean, lehenengoa zen. Helburua "jendeak auto hauen gainean duen irudi okerra aldatzea" zen, antolatzaileek adierazi zigitenez.

120 auto batu zituzten eta larunbatean hamar erosle agertu ziren Arruenan.

Jendearen iritziz, "honelako ekimenek erraztasunak ematen dizkiote autoa erosteko asmotan dabilenari, etxe askoko autoak leku bakarrean ikusteko aukera eskaintzen duelako".

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekambioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioa.
Bergara.Tf. 943 76 33 00

ALMACENES LASCAR S.L.

Olio aidaketa
Errubera aidaketa
Auto garbiketa:
kanpotik eta barrutik
Errebisio orokorra:
frenoak, bujiak, korreak...

Amillaga 32, BERGARA.
943 76 10 38 / 76 19 11. Faxe 943 76 59 60.

Larringan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETAKO

Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETAKO

DENA AUTO


Tel.: 943 71 23 91
Faxe: 943 71 23 89

DESA/CRISTAL

IBILGAILUEN KRISTALDEGIA Tailer berria BERGARAN

Auto, furgoi eta kamioientzako kristalen muntatzea.

Solar-check laminaren instalatzaile baimenduna.



DESACRISTAL

Santalaitz 6, 5. pabilioia

Tel.: 943 76 36 09.

Faxa: 943 76 73 45



35.000
IRAKURLE

Berrigara Arrasate

Dena **AUTO**

2. ESKUKO
AUTOMOBILEN GIDA

Kontratazioa

Idoia Pozo

ARRASATE PRESS:
Otalora kalea 31
20500 Arrasate. Gipuzkoa
BERRIGARA:
Errotalde jauregia z/g
20570 Bergara. Gipuzkoa

Telefonoak:
943 76 03 97
943 71 23 91
Faxak:
943 76 29 77
943 71 23 89

Debagoieneko auto saltzaileok! Aukeran dituzuen erabilitako autoen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara** helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

1999ko eskaintza bereziak hauexek dira:

LERROA: 1.300 PTA

PUBLIZITATE MODULUA: 3.000 PTA

Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.

Maalako
errabala, 13
ARRASATE



UNITED COLORS
OF BENETTON.

Minisaskibaloian jokatzeko

Joan den astean hasi ziren Arrasate Kirol Proiektuko haurrak saskibaloian jokatzeko. Minibasket edo saskibaloia txikiak jokatzeko dute. Saskibaloian oinarrituta haurren berezitasun eta aukeretara egokitutako jokoa dela esango dugu.



Nola jokatu

Ez dago hiru puntuko marrazirik. Jaurtiketa libreetan marra saskiaren taulatik 4 m. ra kokatzen da. Saskiak berriz, 2,60 m. ko garai dira. Taldeko bost jokalaritako bost dira. Ordezko jokalariek txanda itxaron beharko dute.

Saskiratzeak

Jokoan bi puntu balio du bakoi-

tzak eta jaurtiketa librean puntu bat.

Jokoaren iraupena

Partidak 20 minutuko bi zati izaten ditu eta zati bien artean 5 minutuko atsedendia egiten da.

Arauk eta zigorrak

Faltak hiru multzotan sailka daitezke:

Asteburuko hitzorduak Azaroak 27, larunbata

INFANTILAK

SASKIBALOA

NESSAK

San Viator Handi

10:00 San Viator - Aozarat. 2

MUTILAK

San Viator Handi

09:00 S. Viator - Txa. DBH 2-B

11:00 Arrasate B - Aozartza 2

FUTBOLA

NESSAK

Atxabalpe

09:00 La Merced - Aranzadi A

09:00 SFX A - Aranzadi B

10:15 San Viator - Almen

10:15 SFX B - Torrebaso

MUTILAK

Musakola

09:30 SFX - Aozaratza

11:00 La Merced - Txantx. 1-B

AURREKIROLA

SASKIBALOI TXAPELKETA

Gazteluondo

09:30 Erguin A - Musakola

09:50 Ergin A - Merced A

10:10 Merced A - Musakola

10:30 Erguin B - SFX A

10:30 SFX D - San Viator B

11:30 SFX U - Aramaio

11:30 San Andres - SFX B

12:15 San Viator A - SFX C

Merced B - SFX E

MULTIKIROLA

ATLETISMO TXAPELKETA

Jturripen, 10:00etan

NESSAK

SFX A

SFX U

San Viator B

MUTILAK

SFX C

Aramaio

San Viator A

San Viator C

San Viator B

ESKU PILOTA

Jturripen, 10:00etan

NESSAK

Merced

San Viator A

Erguin

MUTILAK

Merced

Erguin

SFX U

SFX A

SFX B

• **Arruntak:** baloiari bote eragin barik korrika egitea, nahita hankaz edo ukabilez jotzea... Jokoa gelditu egingo da eta baloia aurkariari emango zaio.

• **Pertsonalak:** Aurkariarekin izandako arauz kanpoko kontaktuak. Jokalariak ezin

du besoa luzatu edo bizkarrekin, gerriarekin eta belau-narekin aurkakoa gelditu.

• **Teknikoak:** Kiroltasunez aritu ezean, epaileak adierazi egingo du. Aurkariak bi jaurtiketa libre izango ditu eta hurrengo jokaldian baloia aurkariak jarriko du jokoan.



San Frantzisko Xabier A, nesken futbol taldea.



San Frantzisko Xabier A, multikirol nesken taldea.

Taldez talde

MULTIKIROLA

MINIESKUBALOI TXAPELKETA (Behin betiko sailkapena)

NESSAK

	Jokaera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
San Viator B	14,5	14	15	43,5
San Viator A	15	12,5	13	40,5
SFX U	15	13	7	35
SFX A	15	6,5	11	32,5
Merced	15	7	9	31
Erguin	8,5	7	3	18,5

FUTBOLA Elurrarekin bikain




Muruak bi eta Royan bergararrak hirugarrena. Eurek sartu zituzten Mondraren aldeko golak. Izan ere, lehen errejonaleko taldeak 3 eta 2 irabazi zion Mendaroko Kilimon taldeari, joan den asteburuan.

Dena dela, gol gehiago ere sar zezaketen etxekoek, baina elurra oztopo izan zen horretarako. Lehen zatian zelaia erabat lokaztuta zegoen eta bigarrenean elurtuta agertu zen. Mara-mara egin zuen atsendaldian eta Atxabalpeko zelaia zuriz jantzi zen.

Horrek baloia polikiago ibiltzea eragin zuen, baina emaitza ona izan zen Juanina Garairen hamaikakoarentzat. Seigarren daude sailkapenean.

SASKIBALOA Lehen itzulia amaitu da



Derbia jokatu zuten kadete mailako saskibaloiko neskek. Eskoriatza-Almen taldearen bisita izan zuten Musakolan joan den asteburuan. Urduri atera ziren eta bisitarien zatitza mesedegari izan zen hori. Esperientziak aurretik jartzen lagundu zion kanpoko taldeari. Gainera, defentsan lan bikaina egin zuten eta Kenci Arrasate taldekoek ezin izan zuten gauza handirik egin eskoriatzarren kontra. Lehen itzuliko azken partida izan zen larunbatekoa eta 18 eta 46 galdu zuten. Lau talde aritu dira euren multzoan eta arrasatearrak hirugarren gelditu dira.

Orain, hurrengo itzuliko egutegiaren zain egon beharko dute, berriz ere jokatzeko hasteko.

ERRUGBIA Partida gogoangarria




Bilbok 12 eta Arrasatek 36. Horrela amaitu zen senior mailako errugbi taldeak asteburuan jokatu zuen norgehiagoka. Joseba Maidaganek zuzendu zuen taldea eta aurreko asteburuan atsedena izan zutelako edo bilbotarrei irabazi nahi zitelako, kontua da primerako norgehiagoka jokatu zutela arrasatearrek.

Sei entsegu egin zituzten; horietatik bost marrantik izan ziren; bestea aurrelariak sartu zuten.

Aurrelariak lan bikaina egin zuten eta markagailuan antzeman zen. Asteburu honetan aurkari gogorra dute: Eibar taldearen aurka arituko dira Garagartzako zelaian.

XAKEA Azkenean garaipena



Hiru eta bat irabazi zuen San Andres Xake taldeak Donostian izandako neurketan. Gros D taldeko laukotearen aurka bi berdindu eta bi irabazi zuten. Arrasateko laukotea Ortégak, Tornayk, Hernandok eta Ruizek osatu zuten.

Arrasatekoak bosgarren dira sailkapenean eta zorte pisika batekin, laugarren tokian jar daitezke eta datorren urtean euskal ligarako jauzia egin.

Bestalde, abenduaren erdialdean, batzar orokorra egitekoak direla adierazi digute. Jende asko ari da xakean jokatzeko eta tokiz gaizki omen dabilta. Gai hori eta juntaren berri tapena izango dituzte hizpide batzarrean.

Emaitzak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Bilbo 12 - Arrasate 36
- **Kadeteak:** Ordizia 40 - Arrasate 7

FUTBOLA

- **1. errejional maila:** Mondra 3 - Kilimon 2
- **Ohorezko gazteak:** Sportin Herr. 1- Mondra 0
- **2. gazteak:** Arrasate 5 - Eibartarrak 3
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate 3 - Lagun Onak 5
- **2. kadeteak:** Uda 2 - Arrasate 3
- **Ohorezko infantilak:** Lagun Onak 2 - Arrasate 0
- **Errejional maila, neskak:** Urki - Mondra (atzeratu)

ESKUBALOA

- **Gazteak:** Lasalle 12 - Arrasate Almen 24

SASKIBALOA

- **Seniorrak:** Zarautz 52 - Kenci Arrasate 66
- **Juniorrak:** Askatuak Cafes Aitona 116 - Kenci Arrasate 35
- **Kadeteak mutilak:** Iraurgi Azpeiti 52 - Kenci Arrasate 30
- **Kadeteak neskak:** Kenci Arrasate 18 - Eskoriatza Almen 46

XAKEA

- **Errejonalean:** Gros C 1 - San Andres 3

PILOTA

- **Juniorrak:** Arrasate 6 - Aretxabaleta 22
- **Kadeteak:** Arrasate 22 - Aretxabaleta 15

Jokatzekoak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Arrasate - Eibar larunbata, 16:00
- **Gazteak:** Hernani - Arrasate
- **Kadeteak:** Atletico de SS. - Arrasate

FUTBOLA

- **1. errejional maila:** Zarautz - Mondra
- **Ohorezko gazteak:** Mondra-Beti Ona larunbata, 15:30
- **2. gazteak:** UDA - Arrasate
- **Ohorezko kadeteak:** Vasconia - Arrasate
- **2. kadeteak:** Arrasate - Eibartarrak igandea, 12:00
- **Ohorezko infantilak:** Arrasate - Eibar larunbata, 12:00
- **Errejional maila, neskak:** Elgoibar - Mondra

ESKUBALOA

- **Seniorrak:** Hernani-Arrasate Almen
- **Gazteak:** Arrasate - Bergara, igandea, 11:30
- **Kadeteak:** Arrasate - Almen, igandea, 10:00

SASKIBALOA

- **Seniorrak:** Kenci Arrasate - Santo Tomas Lizeoa Iturripe, 18:00
- **Juniorrak:** Kenci Arrasate - Etxadi Argisan Musakola, larunbata, 16:00
- **Kadeteak mutilak:** Kenci Arrasate - Santo Tomas Lizeoa, Azkune Musakola, larunbata, 12:15

XAKEA

- San Andres - Gros C larunbata, 16:00

Uarkape udal pilotalekua Santamas bezperan irekiko da

Abenduaren 21ean, Santamas bezperan, inauguratuko dute udal pilotaleku berria. Uarkape izena jarri diote pilotalekuari eta oraindik lanak egiten ari diren arren, egun horretarako amaituta egon beharko dute erabat.

Izan ere, inaugurazio horretarako pilota partidak antolatu dituzte dagoeneko. Aspe enpresako lau pilotari arituko dira inaugurazioko pilota jaialdian: Goñi II eta Zezeaga, Elkoro eta Titin III.aren aurka. Eurek izango dute estreinaldiko norgehiagoka jokatzeko aukera.



Abenduaren 21ean dena prest izan beharko da.

Dena dela, inaugurazio ofizialaz gain, beste mota bateko jaialdi bat ere antolatu dute. Erabat zehaztuta ez

dagoen arren, abenduaren 18an Arrasate Pilota Taldeak eta Erro pilota enpresak antolatutako jaialdia jokatuko litzateke.

SARRERAK SALGAI

Lehen jaialdi horretarako sarrerak abenduaren 13an jarriko dira salgai. Baina oraindik non erosi zehaztu gabe dagoenez, jakin bezain laster eman go ditzuegu jakitera. Izan ere, abenduaren hasieran prentsaurrea egitekotan dira Uarkape Udal Pilotalekuko arduradunak eta Aspe pilota enpresako ordezkariak.

Kenci-Arrasate, zortzitik sei irabazi

Kenci Arrasate taldeak denboraldiko seigarren partida irabazi zuen larunbatean Zarautzen. Plásticos Urteta-Zarautz Kirol Elkartearen aurka galdu egin zuen aurreko denboraldian Arrasateko taldeak. Hori dela eta, asteburuan lortutako garaipenak balio bikoitza izan du Lander Errastik entrenatzen duen taldearentzat. Gainera, Zarautzko hainbat taldekide Arrasaten ari dira ikasten edo aritu izan dira, eta horrek ere bizi-garria eman zion partidari. Kontuak kontu, 40 minuturen bueltan arrasatearrak garaile atera ziren. Baina ez estuasunik barik. Jokoa aldatu behar izan zuen Lander Errastik eta tarteka alde estua izan zen oso Kenci-Arrasatekoentzat. Bigarren zatian, esaterako, Zarautzaren defentsak agerian jarri zituen Kenci Arrasateko erasoan dituen arazoak. 5. minutuan 9 puntura (28-37) eta 13. minutuan 5 puntuko aldera



Lehen aldiko azken partida Iturripen.

(43-48) gerturatu ziren etxe-koak. Berriz ere jokoa aldatu eta 17. minutuan 46-61 jarri eta amaieran 52-66 irabazi zuten. Lazpiur izan zen Kenci-Arrasateko saskiratzaille nagusia, 17 puntu sartu zituen. Gorostidik, berriz, 15.

BI PARTIDA SEGIDAN

Asteburu honetan etxean ari-

tuko dira, Donostiako Santo Tomas Lizeoa taldearen aurka. Larunbatean 18:00etan hasiko da norgehiagoka. Etxean jokatu dute aste honetan, baina baita datorren astean ere. Izan ere, aste honetako lehen aldiko azken norgehiagoka izango da. Hurrengoan, Gernikaren aurka jokatu dute berriz ere.

Hotzaren aurka, aerobic

Lirain zentroak antolatuta, larunbatean egin zen Arrasateko I. Aerobitoi herrikoia. Ia ehun lagun elkartu ziren Iturripeko kiroldegian gorputza astintzeko. Zortzi monitore aritu behar ziren, baina elurra tarteko, Gasteiztik etortzeko ziren ezin iritsita gelditu ziren. Dena dela, hotzari muzin egitea erabaki zutenek beste sei profesional izan zituzten Iturripeko taula gainean. Aerobic zaleak Arraste, Bergara, Oñati, Durango, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak ziren.



Elurra Zaldibarren

Elurra egin zuen larunbatean inguruotan eta Zaldibarko txapelketan ere elurretan jokatu behar izan zuten hainbat taldek. A ze freskura pasa zuten!

AZKENEAN JOKATU

Abisua berandu eman arren, azkenean joan den asteburuan jokatu zen Zaldibarko txapelketako bigarren jardunaldia. Berandu diogu, Bonba Taldie, talde antolatzaileak, ostiralean bertan egin zituelako astebururako hitzorduak eta ostiral gauen eman zion jakitera talde bakoitzari noiz eta noren

aurka jokatu behar zuten. Hori dela eta, partidatoko bat jokatu barik zen. Dena dela, dagoeneko konpondu dute jardunaldiak antolatzeko zeukaten arazotxoak eta aste honetan dena prest daukate. Adi, beraz, talde guztiak!

BIGARRENEAN, KALE

Diego Antonio eta AT Loka-

la taldeen arteko norgehiagoka jokatu barik gelditu zen. Izan ere, Diego Antonio taldekoak ez ziren partidara agertu larunbat goizean. Berandu hots egin zieten antolakuntzakoek eta azkenean, ez ziren larunbat goizean Zaldibarrera joan. Gauzak horrela, euren errua izan zela aitortu du antolakuntzak eta ez du

taldea txapelketatik bidaliko. Hala ere, Diego Antoniok galdutako partidatzat jo beharko du joan den astekoa. Horrela erabaki zuen antolaketak: txapelketatik kanpo ez, baina partida galdu.

Beraz, puntuak AT Lokala taldearentzat izan dira. Eta norgehiagoka jokatu gabe. Ez da zorte makala!



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Iorre karea. Itzua: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Emaizak

A taldea

Kobate DKB 3 - Sauk. Scream 2
 Irati STS 10 - Xhasss Ugarte 3
 Diego Antonio 0 - AT Lokala 1
 Etxe Mobil 4 - Orlando 12
 You Know 8 - Betrayer 4
 AC Surkos 8 - Sokoakoak 6
 Fraguél Gol 3 - Komando Alp. 7
 Atxanta el Retorno 2 - Totem 6
 Goma Bi 1 - Kanpanzar 7
 Ume Zikinak 6 - Barn Nuevo 2

B taldea

Etxerat Taberna 10 - Aldibi 2
 Alai Gozokiak 5 - Borrock & Roll 4
 Makanudos 1 - Branka Taberna 15
 IKP 5 - Potroak 2
 KK Jaurlaritzari 4 - Txeyenex 0
 Dribling 5 - Sas T 0
 EPEH 7 - AKTA 1
 Leya 3 - Kamasutra 11
 Makai 4 - Timoftol 14
 Garaje Oscar 4 - Aurrera Bolie 5
 Serengeti 8 - Koka Juniors 4

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK			GOLAK			PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
AT Lokala	2	2	0	0	16	1	4
K. Alpargat	2	2	0	0	19	4	4
Kanpazar Harrobia	2	2	0	0	18	3	4
Sokoakoak	2	2	0	0	12	2	4
Sau. Scream	2	2	0	0	7	4	4
AC Surkos	2	2	0	0	7	4	4
You Know	2	2	0	0	13	6	4
Ume zikinak	2	2	0	0	18	8	4
Kobate DKB	2	2	0	0	7	4	4
Orlando	2	1	1	0	12	6	3
Betrayer	2	1	0	1	7	10	2
Irati STS	2	1	0	1	12	6	2
Totem	2	2	0	1	8	13	2
DA Iriztu	2	0	1	2	5	6	1
Fraguel Gol	2	0	0	2	9	2	0
Xhasss Ugar.	2	0	0	2	9	2	0
Goma 2	2	0	0	2	3	12	0
Girandilla Con.	1	0	0	1	7	17	0
Bar Nuevo	2	0	0	2	3	11	0
Etxe Mobil	2	0	0	2	5	17	0
Lontxo Tab.	1	0	0	1	1	12	0
Atxanta el Ret.	2	0	0	2	3	21	0

B taldea	PARTIDUAK			GOLAK			PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Serengeti	2	2	0	0	10	5	4
EPEH	2	2	0	0	14	6	4
Etxerat Tab.	2	2	0	0	15	6	4
Aurrera Bolie	2	1	1	0	10	9	3
Garaje Oscar	2	1	0	1	15	6	2
Borrock & Roll	2	1	0	1	13	7	2
KK Jaurlaritzari	2	2	0	0	8	1	2
Dribling	2	2	0	0	11	2	2
IKP	2	2	0	0	12	5	2
KJ Basati	2	1	0	1	9	10	2
Branka Taberna	2	1	0	1	19	6	2
Timoftol SMD	2	1	0	1	19	11	2
Kamasutra	2	1	0	1	13	8	2
Alai Gozokiak	2	1	0	1	7	10	2
Makanudos	2	0	1	1	6	20	1
Potroak	2	0	1	1	7	10	1
Sas T	2	0	1	1	5	10	1
AKTA	2	0	0	2	2	19	0
Makai	2	0	0	2	7	21	0
Leya	2	0	0	2	4	15	0
Txeyenex	2	0	0	2	2	13	0
Aldibi	2	0	0	2	3	21	0

Hurrengo partidak

azaroak 27, larunbata

Zaldibar

08:50 Atxanta el Retorno - Goma 2
 10:00 Branka Tab. - Dribling
 11:00 Ume Zikinak - Kobate Harrob.
 12:00 Txeyenes - Kamasutra
 13:00 Sas T - Borrock & Roll
 14:00 IKP - Garaje Oscar
 15:00 Timoftol SMD - Potroak
 16:00 Koka Juniors - EPEH
 17:00 You Know - Kanpanzar harrobia
 18:00 Etxe Mobil - AT Lokala
 19:00 Leya - Serengeti

Epailea

(Branka)
 (Goma 2)
 (Dribling)
 (Kobate)
 (Txeyenex)
 (Borrock)
 (IKP)
 (Potroak)
 (EPEH)
 (You Know)
 (AT Lokala)

Iturripe B

15:00 AC Surkos - Orlando
 16:00 AKTA- Makai
 17:00 Xhasss Ugarte - Betrayer

Epailea

(Makai)
 (Orlando)
 (AKTA)

azaroak 28, igandea

Zaldibar

09:50 DA Iriztu - Totem
 11:00 Etxerat Tab. - Makanudos
 12:00 Alai Gozokiak - KK Jaurlaritzari
 12:00 Irati STS - Bar Nuevo

Epailea

(Makanudos)
 (DA Iriztu)
 (Etxerat)
 (KK Jaurla.)

Iturripe A

15:00 Aldibi - Aurrera Bolie
 16:00 Saukelu Scream - Komando Alp.
 17:00 Fraguél Gol - Giraldilla Cone.

Epailea

(Saukelu)
 (Aldibi)
 (Komando)

ARRASATE KIROLAK

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

IBABE GARAJEA

Salmenta eta zerbitzua

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

Enplegu Zerbitzua ■

LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILAREKIN EGINA ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATUTA

Merkataritzako Establezimendurako pertsonala

Ikastaroaren helburuak: Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak lanerako prestakuntza ekintzen artean Merkatal establezimenduetan lana egiteko prestakuntza ikastaroa antolatu du, ikasketa berezirik ez daukaten langabetuei lana bilatzen laguntzeko, prestakuntza programa batetik abiatuta.

Edukiak:

- Bezeroaren arreta • Merchandising • Merkataritza kudeaketa • Talde lana • Eskaparatismoa

Ikastaroaren iraupena: 125 ordu, 1999ko abenduaren 27tik 2000ko martxoaren 7 arte.
Egunean 3 ordu, 09:30etatik 12:30etara.

Izangaien betekizunak: langabezian egotea.

Taldeko partaide kopurua: 15 ikasle.

EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATUTA



DIRULAGUNTZA ZEINEK EMANA:



JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Informazioa eta izen emateak:

Taldeko partaide kopurua: 15 ikasle.
Izena emateko: 1999ko abenduaren 17 arte.

AUTOENPLEGUA ETA ENPRESA GESTIOARI BURUZKO IKASTAROA

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak, Europako Gizarte Fondoaren dirulaguntzarekin, enpresa berriak sortzen laguntzeko ekintzen artean, autoenplegua eta enpresa gestioari buruzko ikastaro bat antolatu du, ezaugarri hauen arabera:

Ikastaroaren helburua: Enpresa-ekimen berriak eta autoenplegua suspertzea, enpresa-kultura zabaltzea eta enpresa proiektuak garatzen laguntzea.

Norentzat: Autoenpleguaren bidea jorratzeko eta negozio-idea bat abian jartzeko asmoa daukaten promotoreentzat.

Ikasle kopurua: Taldea 10-15 partaidez osatuko da.

Ordu kopurua: 60 bat ordu.

Egutegia: 1999ko abenduaren 9tik urtarrilaren 20 arte.

Ordutegia: Arratsaldeko 15etatik 19arte, astelehenetik ostegunera.

Lekua: Arrasate Pasealekua 7 (lehengo IMI)

Izena emateko epea: .. 1999ko azaroaren 30 arte.



ARRASATEKO UDALA

Enplegu Zerbitzua ■

JOXEMI ELIZBURU (TXIRRINDULARI PROFESIONAL OHIA)

“Ikusi dudanagatik e...

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolan hasi zen eta Iberdrolaren eskutik afizionatuetan bi urte egin zituen. **Atxabaltarra da eta Joxemi Elizburu du izena. 21 urterekin profesioletara egin zuen jauzi Iberdrolan aritu eta gero. Bi urteren bueltan, 23 urterekin, bizikletatik jaistea erabaki du. Deportpublic taldean ibili da bi urtez, baina ez du zorte handirik izan.**

— **Zerk eraman zaitu erabaki hori hartzera?**

— Bi urtez egon naiz hor goian eta medikuntza aldetik batez ere, ikusi dudana ez dut gustuko izan. Horregatik erabaki dut lagatzea.

— **Afizionatuetan emaitza onak lortu zenituen eta 21 urterekin profesioletara pasazinen. Zure taldea, ordea, Espainiako tropeleko talderik xumeena zen. Horrek eragirik izan du zure ibilbidean?**

— Ez dut uste. Profesioletara ONCEren eskutik egin nuen jauzia eta ongi joanez gero, banuen aurrera egiterik, talde handiago batekin. Baina zortea ez dut lagun izan eta hortxe geratu da dena.

— **Ez duzu uste oraindik gaztea zarela, eta zure anaiak, Xabier Lazpiurrek egin zuen bezala, beste saiakera bat egin dezakezula?**

— Nire anaiak beste era batera pentsatu zuen. Ni ez naiz iritzi berekoa. Bizikletan irits litekeen mailarik gorenera iritsi naiz eta handagoena ikusi dut. Ez dut uste atzerapausoak egitea denik bidea. Orain behintzat, ez dut afizionatuetara itzuli nahi.

Agian aurrerago beste modu batean pentsatuko dut, buruak buelta asko ematen ditu eta. Baina orain ez dut uste itzuliko naizenik, ez.

— **Afizionatuetatik profesioletara pasatzea da txirrindulari gazte baten ametsa. Zurea ere hala izan da?**

— Txikitatik, beste kirol guztietan bezalaxe, gora heldzea nahi izaten da, maila gorenera iristea. Baina afizionatuetatik profesioletara pasa nintzenez, txikitatik uste izan nuena egia ez zela ikusi nuen. Barrutik ez da kanpo-

tik bezain polita ikusten. Etsipen handia hartu nuen.

— **Zergatik?**

— Uste nuen ez zelako. Beste era batera zela uste nuen, baina oso gogorra da eta konpentsaziorik ez badu, gogorragoa oraindik.



“Txirrindularitza oso gogorra da eta konpentsazio barik, gogorragoa oraindik”

abaki dut lagatzea”

— Zerk baldintzatuko luke zure itzulera?

— Diruak, seguru asko. Egiten den sakrifizioa ordainduko lukeen kontratu batek.

— Zer aldatuko zenuke txirrindulari profesionalen munduan?

— Ikusgarriagoa egin nahiko nuke. Hau da, ikusle gehiago erakarriko lukeen kirol ekitaldi bihurtuko nuke. Lasterketak herri barruan eta zirkuitu itxietan, belodromoetan egitea, esaterako.

— Beraz, zure ustez las-

terketak ez lukete horren luzeak izan behar?

— Itzuliek telebistan ikuskerako orduan erakartzen dute jendea, baina ez dut uste beharrezko denik horretarako ibilbidean itzuli luze eta mendate igoezinak sartzea.

— Nola laburtuko zenuke zure ibilbide profesionala emaitzei dagokienez?

— Profesionaletan ez dut zortirik izan, beraz, txarto atera zaidala esango nuke.

Iaz denboraldi hasieran, birusak harrapatu ninduen eta denboraldi bukaeran jakin nuen

zer zen. Dena dela, lasterketa guztietan egon nintzen. Aurtan, lasterketa guztietan aritu naiz, baina ez dut zortirik izan. Etxeko lasterketetan, Euskal Bizikletan eta Klasikoan, hobeto aritu naiz beste lasterketetan baino. Dena dela, ez da nahikoa izan beste talde handiago batera jauzia egiteko.

— Zelako giroa bizi duzue profesionalen tropelean?

— Gure artean sortzen den giroa beste edozein lanetan sortzen den bezalakoa da. Geure artean hitz egiten dugu gure kezkez, baina astia daukagu-

nean. Egia esateko, itzulietan lasterketa amaitu eta gero ez dugu denbora askorik izaten, masajeak eta antzekoak tarteko direla. Baina logeletan beti izaten da kideren bat eta orduan aprobetxatzen dugu berba egiteko.

— Zer gelditu zaizu egin barik? Zein lasterketatan aritu nahi izango zenuke?

— Tourrera joan nahi nuen, baina ez dut aukera hori izan. Askotan, ondo egonez gero polita da han aritzea, baina txarto ibiliz gero, hobe da telebistaz ikustea. ■

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA



Multilens botatzeko ukipen lenteak:
6 hilebetetarako pack-a

14.900
pta
bakarrik

Eta gainera,
sudadera
zoragarri bat
opari bezala



edo koloretako
lenteak



BAUSCH & LOMB

Koloretako lenteak: graduazioak (-6) dioptriak arte

Ibargarai, 16
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1
ARRASATE

J.M. Barandiaran
Enparantza
ORDIZIA




Txatxikontalariak kontu kontari

Eider Otxoak, Yolanda Perez de Arenazak, Hirune Iribecamposek, Vanesa Gonzalezek eta Garbiñe Perezek osatzen dute Txatxikontalarien taldea. 1998ko martxoan, Txatxilipurdik antolatuta, ikastaroa izan zuten Bergarako Oihulari Klown taldearekin, eta orduan hasi ziren ipuinak kontatzen ikasten. Ikastaroan hamabost bat lagunek hartu zuen parte, eta ikastaroa bukatu eta gero taldea osatu zuten Txatxikontalariak, ipuinak aukeratu, prestatu eta elkarri kontatzeko.

Hemendik aurrera ipuinak irakurtzen eta kontatzen segi nahi dute. Izan ere, liluratuta gelditu dira Monterrongo Haur Liburutegian haurrek egin zieten harrerarekin. Dena dela, Hirune Iribecamposek esan bezala "oso ezberdina da ipuina geure artean edo publiko aurrean kontatu. Ipuin bera hazi egiten da, eta zenbat eta gehiagotan kontatu, gauza berriak eransten dizkiogu".

EDOZEIN ADINETARAKO

Txatxikontalariak garbi dute edozein ipuin dela baliagarria edozein adinetarako. "Txikitako ipuin guztiak oso egokiak dira nagusientzat, beste begi batzuekin ikusten baitira. Edozein modutan ere, ipuinak aukeratzekoan ume txikientzakoekin izan behar da konturik handiena. Nagusi batek marrazki asko ikusi ditu,



Hirune Iribecampos, Eider Otxoak eta Yolanda Perez de Arenaza.

Haurtxikientzakoetan, ordea, argazkiek oso garbiak izan behar dute, haurrak entzuten duenaren inguruan oinarri bat izan dezan", argitu digute Txatxikontalariak.

Ipuinak irakurri eta barneratu egiten dituzte kontatu baino lehen. Ongi barneratutako ipuina jeneralean oso ongi kontatzen da, eta nolabaiteko hartueman sortzen da kontalari eta entzulearen artean. Yolanda Perez de Arenazak aitortu digunez, "azken batean, ipuina ez da aurretik irakurritakoa esatea, norberak barnean sentitzen duena kanporatzea baizik". Ipuin

kontalariak, beraz, bitartekari lana egiten du ipuinaren eta hartzailearen artean.

Txatxikontalariak gustuko dute ipuinen bertsoak egitea ere. "Txanogorritxuren ipuina, adibidez, amaren ikuspuntutik kontatuta barneratu dugu. Baina, ipuin berbera guztiz bestelakoa litzateke otsoaren edo amonaren ikuspuntutik kontatuz gero. Ipuin guztiei eman dakieke buelta, beraz".

JASO ETA EMAN

Orain arteko emanaldietan ezusteko handia jaso dute Txatxikontalariak, hain adin txi-

kiko haurrek ipuinak kontatzean horren arreta handia jarri dutela ikusita.

Bestalde, hurrengo emanaldietarako akatsak zuzentzeko ere baliagarri izan zaie. Hala ere, Eider Otxoak esan digunez, "bi urrats daude ipuinak kontatzearen inguruan. Batetik ipuina irakurtzean norberak jasotzen duena dago. Bestetik, berriz, ipuina jendaurrean kontatzean norberak ematen duena". Eta Txatxikontalariak aitortu digutenez, ipuinetatik jaso edo edatez ez dira oraindik ase.

Boskote ona osatzen dute txatxikontalariak.

Bad F-Line eta Freak XXI taldeen aurkezpen kontzertua gaztetxean

Bad F-Line eta *Freak XXI* musika taldeek kontzertua eskainiko dute Arrasateko gaztetxean, azaroaren 26an. Gaueko 22:00etan ekingo diote kontzertuari.

Bad F-Line talde arrasatearrak joan den otsailan kalerratu zuen bere azken diskoa, *Desobediencia Madrilgo* disketxearekin. Arrasaten oraindik aurkeztu gabe zutela eta,

gaur bertan egingo dute aurkezpen ekitaldia. Bestetik, Kataluniako *Freak XXI* taldeak oraintsu grabatu du "El Anfitrion" lana, *Ktulu* taldeko hiru kide ohirekin. Talde horrek

orain gutxi estreinatua den *Shaky Carmine* pelikulako hots zerrenda ere egin du. Nolabait definitu behar eta, esango genuke metal aurrerakoia deituriko estiloa lantzen dutela.

VALENTIN ARANA (MARGOLARIA)

“Orain abstrakzioa ez zait batere gustatzen”

Azaroaren 28 arte Harresi aretoan egongo dira ikusgai arrasatear honen margolanak. 39 urte ditu Valentinek, eta 47 margolan jarri ditu jendaurrean oraingo honetan. 1995ean egin zuen aurrengo erakusketa Harresi aretoan. Harrezkero asko aldatu ei du bere estiloa.

— Nondik datorkizu margotzeko zaletasuna?

— 12 urterekin hasi nintzen margotzen. Julio Galartak eskolak ematen zituen Zerrajeran eta nagusi artean, neu nintzen ume bakarra. Gero hamabost bat urtean egon nintzen ezer egin gabe. Erakusketak ikustera eta joaten nintzen, baina margotu, ezer ere ez. Duela hamar urte, berriro hartu nituen pintzelak.

— Zein estilo erabiltzen duzu gehien?

— Inpresionismoa edo figuratiboa. Lehen paisajeak bakarrik marrazten nituen, eta orain figurak eta erretratoak ere egiten ditut. Denetik marraztea gustatzen zait.


— Zer behar da margolari ona izateko?

— Ordu pila sartzea beharrezkoa da. Gero gustu eta sentsibilitate piska bat ere eduki behar dira, eta irakasle onak edukitzea ere funtsezkoa da.

— Zer ez zenuke sekula margolan batera eramango?

— Orain abstrakzioa ez zait batere gustatzen. Eboluzio bat eduki eta abstrakziora iritsiz gero, ongi iruditzen zait. Hutsetik gauza abstraktuak egiten hastea, berriz, ez zait ongi iruditzen.

— Erakusketa ugari egin duzu.



— 1995ean egin nuen lehenengo erakusketa, Harresi aretoan. Sasoi hartan paisajeak bakarrik marrazten nituen. Orain figurak, erretratoak eta beste zenbait konposizio ere egiten ditut. Oraingo hau Harresi aretoan egiten dudana bigarrena da. Hiru erretratu, arrantzaleen hiruzpalau figura, paisajeak eta Arrasateko hiruzpalau gai ere badauzkat. Dezente aldatu dut estiloa azken urteotan.

— Zer dela eta garapen hori?

— Bilbora joaten aritu naiz goizetan urtebetez, Arte eta Erreproduzio museoan. Gero margolari onak ere ezagutu ditut, Carlos Gil adibidez, eta harekin ere asko ikasi dut.

— Baina, herritik kanpora ere egin izan dituzu erakusketak.

— Bai. Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Donostiako Amets erakusketa aretoan ere hiruzpalau aldiz erakutsi ditut nire margolanak.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Bilboko Udalaren eskutik, “Bilbao” udal aldizkarian beka-dun aritzeko aukera. Epea: abenduak 1.

• EHUK eta *El Correo* egunkariak, 15 kazetaritza bekaren deialdia egin dute, kazetaritzako 4. mailan dauden ikasleentzat. Epea: abenduak 1.

■ LANA

• Eibarko Udalerako udaltzaina behar da. Epea: abenduak 7.

• Port Aventura 800 lanpostu bete nahi dira datorren urteko martxotik eta azarora lan egiteko. Epea: Abenduak 8.

• Uharteko Udaleko Musika Patronatuak, klarinete eta saxofoi irakaslea behar ditu. Epea: Abenduak 10.

• Zumarragako Udalak, arkitektoa, zergabilketa eta errentarako administraria, liburutegiko arduraduna eta udaltzaina behar ditu. Epea: EAOean argitaratzeko zain dago.

■ IKASTAROAK

• “Setem Hego Haizea”ren eskutik hainbat ikastaro: Bidezko Merkataritzaren eragileen pres-taketari buruzko monografikoa, hegoaldeko herrien errealitatea, garapen lankidetzarako estrategiak... Hainbat epe.

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, “Hastapena eta segurtasuna goi mendian” ikastaroa. Teleran egingo da abenduaren 11 eta 12an.

■ EKINTZAK

• Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia Tolosan, azaroaren 27tik abenduaren 5era bitartean.

• Durangoko liburu eta disko azoka, abenduaren 3tik 8ra bitartean.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Margolari ona izateko maisu ona behar da”



Programazioa

OSTIRALA 26

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzak. Kontxi Juantorenarekin.
- 13:45** Ekilan. A. Gorritibereak Pedro Etxabe izango du programara lkerlanen 25. urteurrena dela eta.
- 20:00-20:30-21:00** Berriak. Eguneko albisteak, Maider Osak aurkezturik.
- 21:30** Astebete. Maider Osak astean izandako albisterik garrantzitsuenak erreparasatuko ditu.
- 22:00** Gatza ete Berakatzak (errepika.)
- 22:15** Soinuz Blai. Azken orduko bideo klipak, Miren Gonzalezek aurkeztuta.

LARUNBATA 27

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Ekilan, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA 28

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Ekilan, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA 29

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzak. Igor Ezpeletak prestatutako plater bat.
- 13:45** Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Mondrasport. Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik asteburuan kiroletan izandakoaren berri emango digute.
- 22:00** Gatza eta Berakatzak. (Errepika.)

ASTEARTEA 30

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzak. Igor Ezpeletak prestatutako plater bat.
- 19:25** Jolasplast.
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Hamaika Magazin. Arantzazu Lagunillak aurkezturik. Aste honetako gai nagusia HIESa izango da.
- 22:00** Gatza eta Berakatzak (errepika).

ASTEAZKENA 1

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzak.

Igor Ezpeletak prestatutako plater bat.

- 13:45** Hamaika Magazin (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Aurrez Aurre. Edurne Mujikak aurkeztutako saioa. Arrasate eta garai baten nolakoa zen ezagutuko dugu gonbidatu berezi baten laguntzaz.



Edurne Mujika.

- 22:00** Gatza eta Berakatzak (errepika).

OSTEGUNA 2

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzak. Igor Ezpeletak prestatutako plater bat.
- 13:45** Aurrez Aurre (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.

- 21:30** Musiklasik. Iñaki Olaizolak aurkeztu duen programa honetan, Santa Zeziliaren omenetan egin diren kontzertuen berri emango dugu.



Iñaki Olaizola.

- 22:00** Gatza eta Berakatzak (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Aste honetan Edu Abasolok emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.

OSTIRALA 3

- 13:30** Albiste Aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzak. Igor Ezpeletarekin.
- 13:45** Musiklasik (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.
- 22:00** Gatza eta Berakatzak (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Edu Abasolo.



UNZUETA
J A T E T X E A

Karta
Menu bereziak
Eguneko menua
Plater konbinatuak

Zabola auzoa. ARAMAIO.
Tel.: 945 44 50 95

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

Musika hotsak

Soinuz Blai osteguna, 22:15



Miren Gonzalez eta Edu Abasolo.

Bigarren denboraldia du hau Soinuz Blai musika saioak. Iaz abiatu zen, Aretxabale-tako bi gazte irratizalaren eskutik.

Andoaingo Bideo Eskolan ikasten ari zela, Arrasate Irratian hasi zen Edu Abasolo, boluntario gisa; teknikari moduan lehenengo eta esatari bezala gero.

Iban Gonzalezek, aldiz, Bilbon ikasi zuen, Irrati-telebisten Eskolan. Arrasate Irratian egin zituen lehen urratsak esatari moduan.

Telebistarako jautzia iaz egin zuten, ATBk aurkezle aukeraketa bat egin zuenean. Biak aurkeztu ziren eta aukeratu egin zituzten.

Horrela sortu zen Soinuz Blai saioa. Hasieran musika komertziala eta komertziala ez zena sartu nahi


zuten, baina alperrik. Disketxeetatik, behintzat, musika komertziala baino ez zitzairen iristen: pop, dance eta horrelako estiloak.

Iban Gonzalez ETBn dabil orain, baina Soinuz Blai ez da horregatik desgertu. Aitzitik, indarberritu egin da. Miren Gonzalez, 18 urteko arrasatearrak hartu du Ibanen lekua. Lehen bezala, orain ere txandaka egiten dituzte aurkezpen lanak Eduk eta Mirenek.

Saioaren egitura ez da aldatu: ordu erdiz, azken orduko bideoklipak aurkezten dira. Ondoren, agendan, asteburuko musika ekitaldien berri ematen da.

Saio hau ATBn ezezik, Canal Gasteizen eta Tele 7 Bilboko telebistan ere ikusten da.

Gatza eta Berakatzza



Aste honetan **Igor Ezpeleta** izango dugu berriro ere *Gatza eta Berakatzza* saioan. Garagartzako Elizondo jatetxeko sukaldariak astebete izango du plater sorta berria aurkezteko. Besteok izango dugu zer ikasirik.

Datorren astean

NOIZ

Astelehena 29
Asteartea 30
Asteazkena 1
Osteguna 2
Ostirala 3

PLATERA

Barazki budina.
Azelga beteak.
Solomillo betea.
Zapoa letxuga eta tomatearekin.
Sagar tatina.



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Guztiz berriztatuko etxebizitza salgai Bizkaia etorbidean: hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Tel.: 943 79 48 72 edo 606 76 50 22.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokatzen dut ikasleentzat. Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gauzez.

• Apartamentu bat alokatzen da Hendaiako hondartzaren ondoan. Guztiz jantzita dago, berogailu, terraza eta lorategiarekin. Astebukaera edo denboraldietarako. Tel.: 943 79 86 65 eta 656 76 02 58.

4. Errentan hartzeko

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 62 13 57.

• Logela bat alokatuko nuke, berdin zait beste batzuekin bada. Tel.: 943 52 41 30. Xabi, gauzez.

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Arrasateko erdialdean dago. Tel.: 630 02 60 45. Xabier.

• Neska bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Andramari 1, enparantzan. Aretxabaleta. 2.500.000. Tel.: 943 77 02 27.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• 90 m²ko toki bat saltzen da Olatre kalean, 43 bis. Tel.: 943 77 03 96.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 42 65.

• Taberna salgai, ongi kokatua, eta lanarekin. Tel.: 696 36 41 25.

• Lanean diharduen taberna-erregia salgai. Tel.: 943 76 23 08.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatua
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineako dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Manolo.

79 81 25. Gauetan.

14. Errentan emateko

• Uberan 80 m²ko lokal bat alokatzen da, biltegi moduan erabiltzeko. 30.000 pta. Tel.: 943 76 30 84.

• Bost pertsonentzako lokal txikia alokagai, prezio onean. Tel.: 629 89 95 53 eta 630 20 56 70.

• San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokagai, berogailu eta guzti. Kontsulta edo ofizinarako egokitua dago. Tel.: 943 79 18 95.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

LANA

17. Eskaintza

• Neska gaztea prest asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 42 54.

• Emakumea prest atariak, bulego, etabarreko garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Ospital laguntzaile tituludun neska prest arratsaldean lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 943

• Erizain kualifikatuak gaixoak zaintzeko prest, etxean, ospitalean edo zerbitzu berezietan. Tel.: 609 55 54 66. Gauzez.

• Neska, umeak zaintzeko prest. Eskola partikularrek ere emango lituzke, ingelesa bereziki. Arrasaten eta Eskoriatzan. Tel.: 606 75 59 13.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

• Esperientziadun emakumea prest goizetan, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Emakumea prest goizez lan egiteko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Neska euskalduna, administrazio eta komertzial tituluduna, prest alor honetako lanak egiteko. Frantsesa eta ingelesa menperatzen ditut. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

• Neska euskalduna eta esperientziaduna-etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

• Esperientziadun emakume euskalduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.

• Ospital laguntzaile tituluduna prest pertsona nagusiak eta gaixoak zaintdu eta eramateko, auto handi batean. Tel.: 609 77 01 33.

• Neska gaztea prest umeak zaintdu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

18. Eskaerak

• Zerbitzaria behar da asteburu-eratarako. Tel.: 945 44 50 86.

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Beharrezkoa autoa edukitzea. Tel.: 943 77 01 73 eta 616 92 49 88. 20:00etik aurrera deitu.

• Prestakuntzarako kontsultore bat behar da, komunikazio teknikan eta giza harremanetan trebatua eta esperientziaduna. Interesatuak 656 41 08 16 telefonora dei dezakete.

• 25-45 urte bitarteko emakumea behar da Arrasateko arropa denda batean arratsaldetan lan egiteko. Tel.: 943 79 16 12.

• Sukaldaria behar da asteburu-eratarako. Ahal bada, esperientziaduna. Tel.: 943 78 34 79.

• Neska edo emakumea behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Umeak zaintzeko pertsona bat behar da, erreleboka. Tel.: 943 79 14 39. Idoia.

• Taberna batean neska edo mutila behar dute barra zerbitzurako. Tel.: 943 77 14 93.

• Pertsona bat behar da zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 76 22 68.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskolak ematen ditu. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Ingeles filologia ikasten ari den gazte batek, ingelesezko eskolak emango lituzke. Tel.: 943 71 47 85.

• 1. eta 2. Hezkuntza eskolak ematen dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

21. Eskaerak

• Zientzia Ekonomikoetan lizentzia-

duna behar da eskola partikularrak emateko, euskaraz dakiena. Tel.: 943 79 33 91. 19:00etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

- Suzuki SJ413 salgai, hagun, krokadura homologatuta. Lau gurpil eta olana oparian. Prezioa: 535.000 pta. Tel.: 943 78 14 72.

- Autoa salgai Peugeot 309 GT, 1987koa. Prezio ona eta egoera onean. Tel.: 943 79 20 49.

- Ford Fiesta modela zaharra salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 13 75.

- R11-TSE autoa salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 92 70.

- Motorra salgai, Suzuki GS 500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000 km. Asegurua maiatza arte. Estrak eta oso egoera onean. Prezioa: 400.000 pta. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

- R5 Turbo Fase 2, salgai. Tel.: 943 20 83 94 edo 600 89 02 45.

DENETARIK

26. Saldu

- HIFI musika katea salgai: pletina, sintonizatzaile, disko jogailu, eta hiru bideko bi baffle. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

- SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 Wdun amplifikadorea eta Ibañez baxu elektrikoa dagokion kutxatila eta mantenu osagaiekin batera salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

- Idazmakina elektronikoa eramangarria salgai; kalitate handiko inprimatzea. Olivetti PT 505. Tel.: 943 79 99 29. 19:00-21:00.

- Rot Weiler txakurrak salgai. Interesatuok deitu 943 71 48 53 telefonora.

- Bulego altzariak salgai (mahaia, aulkia), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.

- Ekonomika salgai. Egurra errez ura berotzen du, iturri eta berogailuetakoa. Tel.: 943 76 62 36.

- Akuariuma salga, osagai guztiekin. 150 litrokoa. Tel.: 649 05 32 08.

- Kerosenozko berogailua, usainik botatzen ez duena, salgai. Kero markakoa da eta ia berria dago. Prezio onean. Tel.: 943 79 09 43. Denda orduetan deitu.

- Solarium bat salgai dago, oso gutxi erabilita. Tel.: 943 77 16 54.

- Convert Supreme karro-denda, osagai guztiekin salgai. Tel.: 943 77 13 81. Manuel. 20:00etatik aurrera.

- 42 zenbakiko zeharkaldirako eskiak salgai. Lowa marka; berriak daude. Deitu 943 79 84 04 edo 943 79 27 39 telefonoetara. Andoni.

- Urtebeteko Nintendo 64a salgai. Prezio onean. Tel.: 943 77 04 21.

- Opel Comborentzat, auto gainean trasteak eramateko bi barra salgai. Merke-merke. Tel.: 943 79 15 96. Unai.

27. Erosi

- Xoxoa disketxeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

29. Eman

- 1,35 m. neurriko koltxoia oparitzen da. Tel.: 943 79 48 02.

31. Galdu

- Betaurrekoak galdu ditut Arrasate, Bedoña, Urkulu inguruan. Eskertuko nuke deitzea. Tel.: 606 86 71 97. Gaez deitu.

32. Aurkitu

- Puntuzko txaleko marroi eta grixa aurkitu dut autobus geltokian, Interatuok jo Abaroara eta Tere Guri-diz galdetu.

33. Bestelakoak

- Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

- Reiki II, esku ezartze saioak. Mota guztietako gaixotasunak: estresa, insomnioa, buruko minak, beheraldiak. Tel.: 943 79 82 18. 20:00etatik aurrera.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

- Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginatke. Tel.: 943 71 25 11.

- Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaez deitu.

- Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.

LANA BILATZEKO BIDEAN...

Lan orientabidea ikastaroa

Arrasateko Emakume Saila, emakumeak lan esparrura hurbiltzeko ekintzen artean, emakumeei zuzendutako lan orientabide ikastaro bat antolatzen ari da, SARTU Prestakuntza eta Lanbidea Elkartearekin batera.

- **Ikastaroaren helburua:** Proiektu profesionalean eta lana aurkitzeko planean orientazioa eman.
- **Norentzat :** Unibertsitario nahiz lanbide formaziodun emakume langabearentzat.
- **Tokia:** IMIn, Arrasate Pasealekuan.
- **Ordu Kopurua:** 42 ordu talde lantegia, 26 ordu bakarreko orientabidea, eta 10 ordu jarraipena.
- **Ordutegia:** goizez 09:00 - 12:00
- **Noiz:** abenduan hasi eta martxora bitartean.
- **Izena emateko epea:** Abenduak 3, Arrasateko Emakume Sailean, telefonoa: 943 79 41 39



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



L 972. urtean Mondragoeko lau lagun hauek urrutiko paraje batera joan ziren: Berlinerara. Hango Filarmonikarekin Carmina Buranaren antzezpenean parte hartu behar zuten, Donostiako Orfeoiko kide moduan.

Argazkiko gure lau lagunak hauek dira, ezkerretik hasita: Pedro Zumelaga, Antonia Turrientes, Genaro Suinaga eta Karmelo Heriz Zubia.


Dena dela, gure lau lagun hauek gain, Euskal Herritik bi hegazkin atera ziren Berlin alde-rantz abendu hartan antzezpenean parte hartzeko. Hara joan ziren

euskaldunek oraindik ere gogoan bizi-bizi dute Alemania alde hartan egiten zuen hotz handia. Zerotik beherako graduak markatzen zituen termometroak, ubideak ere izoztu zituen hotz fin hark.

Bitxikeria moduan, gure lagunak antzeztokira ateratzeko zain elegante-elegante zeudenean, emakume bat gerturatu zitzaion Pedroz galdezka. Itxura denez, Eskoziatzako "Zarauztarra" tabernako jabeen alaba zen, Irene.

Argazkia eta berriematea: Pedro Zumelaga.

Telefono mugikorra gauza arrunta da dagoeneko



**Airtel
Formula
Pack
Eskaintza**

**Pta asko
deietarako.**

**Airtel
hemen:** AIRTEL ARRASATE
Maalako Errabala, 33
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 50 32



*16%ko B.E.Z. barne. Eskaintza hil bukaera arte.

Jostunen afaria

KAFETEGIKO MENUA

Zainzuriak bi saltsatan
Otarraínska garrezatuak

Bakailaoa saltsa berdean

Bildots errea

Masusta zurrupakia

Kafea

Marin Palacios beltza
edo
Cigales ardo gorria

Prezioa: 4.500 pta. (BEZa barne)

JATETXEKO MENUA

Askotariko iberikoak
Vichissoise beroa

Abakando gainerrea kabiar
mousselina erara

Solomotxo Wellington erara

Almendra tarta izozkiarekin

Kafea

Bordon Crianza 95
edo
Gran Feudo Chivite ardo gorria

Cava: 1551 Codorniu

Prezioa: 5.950 pta. (BEZa barne)



Biteri Etorbidea, 16
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33
Faxa: 943 71 23 43

**Sorpresa
ugari
prestatu
dizugu.**

**Animatu eta
etorri!!**

Etxeko tratu txarrak? Eraso sexualak?



**Emakume,
zuri laguntzeko
gaude**

☎ 943 79 09 00 / 943 79 41 39


Gizarte Zerbitzuak
Emakume Saila



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■
Gizarte Zerbitzuak ■

SUKALDE HONEK
ASPER-ASPER
EGINDA NAUKA.



BADAKIT ZER EGIN!
IKERREK LAGUNDUKO
DIGU.



BAINA
ALDATZEKOTAN...
GURE POLTSIKORA
EGOKIA IZAN DADILA,
KALITATEA NAHI DUT, MATERIALE
ONEKIN EGINA, POLITA, MODERNOA,
GURE SUKALDERA EGOKITUA,
ESPAZIOA APROBETXATUZ,
AUKERA ASKOREKIN ETA
AZKARRAK IZAN DAITEZELA,
BAITA ERE...



GOAZEN
BEHINGOZ
IKERRERA



IKER



INAUGURAZIO FESTA BAT
EGINGO DUGU LAGUNEI
ERAKUSTEKO.



A!
GURE AMETSE-
TAKO SUKALDEA.

ERREALITATE BIHURTZEN DIREN ILUSIOAK

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE
Tel.: 943 79 99 42

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 